

Goienka

EGUBAKOITZA • 2004ko urtarrilaren 9a • IV. urtea • 134. zenbakia • DOAN BANATZEKO



MARIA DOLORS BELLES / 'EL PUNT'
"ETAren su-etenak aldaketak ekarriko ditu Kataluniako gobernuan" /7

Goienka2a
 Debagoieneko lau argazkilarirekin egon gara

ASTEKO GAIA: 2003KO OTSAILAREN 20AN ITXI ZUTEN 'EGUNKARIA' /3

Ibarreko langileak 'Egunkaria'-z mintzo

Guztion ahotan dago gaur urtebete gertatu zena: euskalgintzak azken urteotan jasan duen kolperik latzena jaso zuen otsailaren 20 hartan, Juan del Olmo epailearen aginduz, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenean. GOIENKARIAK *Euskaldunon Egunkaria*-n lanean ziharduten debagoiendarr

rekin egin du berba (gehienak, gaur *Berria*-ko langile), eta haiei eman die hitza.

Debagoiendarrongan, haserrea eta ardura dira nagusi. Jendearen elkertasuna eskertzen duten arren, ondorio nagusia da euskalgintza babesgabetasun egoeran geratu dela. /3

■ *'Egunkaria'-n lanean ziharduten ibarrekoek egiten dute berba*

■ *Eruskal kulturaren etengabeko zapalkuntzaz ohartarazten dute*



IBAN ARANTZABAL

Elgeta zuri-zuri zegoen atzo, eguena, arratsaldeko 16:00etan.

Bazterrak zuritu ditu elurteak eta arazoak sortu dira kaminoan

Negu antzean ibili ginen atzo, eguena, egun guztian barrena. Eguerdi partean elurra hasi zen eta horrela egon zen arratsalde partean. Debagoieneko bazterrak zuritu egin zituen elurteak. Herri eta auzo garaienetan, Elgetan eta Leintz-Gatzagan esaterako, zuri-zuri zeuden kaleak, teilatuak, autoak eta zelaia. Beste herrietan ere elur dezente egin zuen eta, ondorioz, arazoak sortu ziren errepideetan, Kanpanzar, Arlaban, Gatzaga, Deskarga eta Elosu mendateetan batez ere. Elurra kentzeko makina jo eta ke ibili zen lanean arratsalde osoan.



MIRARI ALTUBE

Aratusteak datozela-eta, Urdelardero

Aratusteak iragartzen dituen Urdelardero eguna ospatu zuten atzo Eskoriatzan. Hain justu ere, eskoriatzarrek Urdelardero eguna ospatzen dutela 26 urte bete ziren atzo. Kristautasunak era guztietako penitentzi, sakrifizio eta barauz osatutako denbora-tartea ezarri zituen, hau da, Garizuma. Horri oreka bilatu guran, Inauteriak ospatzen hasi ziren. Eskoriatzako ikastetxeetako umek kalejira egin zuten eta txistorra jan zuten. /6



Dinamismoa.
 Deportibotasuna.
 Esklusibotasuna.
 Segurtasuna.
Golf berria.

Udalaitz



Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Gu bagara 'Asteleheneko Goienkaria'-ko harpidedun. Egin zaitez zu ere!



EDORTA AIASTUI |

ARRASATE MUSIKALEKO KIDEA, ARRASATE

“Asteburuko ekitaldi kulturalen berri izatea zoragarria da, musika arloari bultzada emateko eta herritarrak erakartzeko. Gainera, askotariko arloak daude, eta hori aberasgarria da denondako”.



ANTON ELORTZA |

ANTON TABERNA, OÑATI

“Tabernan, dagoneneko, jendea hasi da eskatzen. Gainera, geure astekaria da, bertako notiziak ekarriko ditu, euskaraz, eta hori oso garrantzitsua da. Zaindu egin behar da egitasmo berri hau”.



IÑAKI AGIRIANO |

UDAL LIBURUTEGIA, ESKORIATZA

“Ibarrean daukagun beste informazio iturri bat da. Asteburuetan gauza asko gertatzen dira, eta egubakoitzarako zaharkitu egingo diren ekintza guztiak fresko-fresko jasoko ditugu astelehenetan”.



AURELI COT |

ILE APAINTZAILEA, ANTZUOLA

“Egubakoitzetako helduko den zain egoten naiz, oso gustura irakurtzen dut. *Asteleheneko Goienkaria*-k asteburuko gertaerak kontatuko ditu, eta zer, non eta nola pasatu den jakitea gustatzen zait”.



JUAN LUIS AREXOLALEIBA |

EMUN KOOPERATIBA, ARRASATE

“Produktu oso duinera ohituta gauzka Goienak. Kaleratu berri den *Asteleheneko Goienkaria* beste urrats garrantzitsu bat da. Ea herritar guztiok behar den bezala erantzuten diogun harpidetzari”.



OLATZ PAGALDAI |

AKTOREA, ESKORIATZA

“Txukuna iruditu zait, gustura irakurri dut. Gurasoek ez dute euskaraz irakurtzeko ohiturarik, baina GOIENKARIAk dakarrena pozik irakurtzen dute. Asteburukoak ere jasoko ditugu orain”.



PAULINO IBABE |

SAN MARTIN ESKOLA, ARAMAIO

“Ibarreko eskolek antolatzen dituzten ekitaldiak jasotzea gurako nuke. Eskola kirola, irteerak eta bestelakoak. Ikasleek beraiek ere gogoz irakurriko lituzkete, eta hori oso garrantzitsua da”.



LIERNI MENDIZABAL |

LANGILEA, ELGETA

“Kirolzalea naiz, eta pozik irakurri ditut Debagoieneko kirol taldeen emaitzak. Kultura ere atsegin dut, eta antzerki, zinema edo bestelako ekitaldien berriak ere berehala irakurtzen ditut”.



DAVID BLAZQUEZ |

BANKUKO ZUZENDARIA, OÑATI

“Gainontzeko egunkarietan gure inguruko gauza gutxi irakurtzen ditugu, eta bertako notiziak dakartza GOIENKARIAk. Orain, asteburuetan gertatu direnak ere zuzenean jakingo ditugu”.



INO GALPARSORO |

EH-KO ALKATEORDE OHIA, ARRASATE

“Euskararen normalizazioak behar duen eskaintzaren bidean ekarpen bat gehiago dela uste dut, eta berri hurbiltasunak irakurtzera bultzatzen gaitzen ekimen interesgarri bat moduan ikusten dut”.



ROBERTO ALTUNA |

UDAL EUSKALTEGIA, OÑATI

“Hurreko informazioa, ondo landuta eta denok entendituko moduko euskeran emunda izan dira GOIENKARIAren ezagarririk; astelehenekuak be beste hainbeste egittia espero dot”.



PANTXIKA ARIN |

IRAKASLEA, ANTZUOLA

“Atalen eta gaien arteko oreka bilatzea nahi nuke, asteburuetan dena ez da eta kirola. Bestetik, notiziak gerturatzea beti da ona. Gai nontzeko egunkarietan jasotzen ez direnak ekartzen ditu honek”.



JOSEBA EZPELETA |

AED ELKARTEA, ARRASATE

“Euskararendako oso notizia ona da produktu hau kalean egotea. Poztu egin naiz lehenengo zenbakia esku artean izan dudanean. Bestetik, egia da irakurle asko asteburuko emaitzak jasotzeko zain dagoela”.



RAFA MUNGIA |

KAZETARIA, ARRASATE

“Normalean asteburuetan egiten dut lan, eta aldizkari berri honek esango dit ibarrean zer gertatu den. Gainera, argazki asko dituela ikusi dut, eta hori gustatzen zait. Oso irakurterraza da, eta bertakoa”.



MARI JOSE ETZEGOEN |

ZINEGOTZIA (EAJ-EA), OÑATI

“Euskal prentsa lagundu eta bultzatu behar dugula iruditzen zait, batez ere azkenaldi honetan bizi duen jazarpena ikusita. Lehenengo zenbakia etxean jaso dut, eta pozik irakurri dut, ondo jaso du asteburua”.

Asteleheneko



Eskerrik asko, harpidedun

Kalean da *Asteleheneko Goienkaria*. Santamasetan promozionatzeko eta proba moduan atera genuen zero zenbaki berezi haren ondoren, joan zen astelehenean ekin zion bideari, ofizialki, Goienaren produktu berriak. Polita atera ere lehenengo zenbakia. Ikusmin handia sortu du eta bai orain arte harpidedun egin direnek zein ohiko egunkari saltokietan eskuratu dutenek gustura jaso eta irakurri dute.

Albistez josia zeterren, gainera, *Asteleheneko Goienkaria*. Asteburuko kirol, kultur eta bestelako ekitaldien kronika mordoarekin: **Jardunek** antolatzen duen Amodiozko Gutunen Lehaketak, **Antzuolako Mendi Elkarteak** Oñatiko **Zurkutzen** ipinitako gurutze berria, maiatzaren 14ko hauteskundeak, **Torturaren Aurkako Taldeak** antolatutako ekitaldiak, Arrasateko **Corazon de Encina** extremadurar kultur elkarteak, Realaren eta Athleticen arteko **derbia**, ibarreko futbol, eskubaloia eta saskibaloia taldeak, gimnasia eta squash txapelketak, **Los Suaves** taldearen musika emanaldia... Oraingo asteburuan, berriz, kontu bat nabarmenduko da beste ezeren gainetik: **Aratusteak**. Argazki piloa ekarriko du oraingo astelehenean banatuko denak.

Bueno, eta amaitzeko, ezin dugu ahaztu etxeko banaketan, lehenengo zenbaki honekin, izan ditugun arazoak. Harpidedun batzuei ez zaizue *Asteleheneko Goienkaria* etxera heldu, arazo batzuk tarteko. Goienak barkamenak eskatu nahi dizkie harpidedun horiei, erakutsi duten pazientziagatik, eta espero du hurrengoetarako arazo horiek konponduta izango direla.

Aratusteetako argazkiz josita etorriko da oraingo 'Asteleheneko Goienkaria'

'Egunkaria' itxi zutela urtebete

'Euskaldunon Egunkaria'-n zebiltzan lau debagoiendarrek gertutik bizi izan zuten

LEIRE KORTABARRIA

Salaketa ekitaldiak, liburu bat, hitzaldiak... Orain dela urtebete gertakariak gogora ekartzeko aukera ugari izango ditugu gaur, otsailak 20. Euskal gizarteak eta Martin Ugalde parkeko langileek, batez ere, ez dute ahaztu otsailaren 20 hartan euskalgintzak jasan zuen eraso, *Euskaldunon Egunkaria* itxi baitzuen Guardia Zibilak. Horiek berriro salatzeke, ekitaldi publikoa egongo da gaur Andoaingo Martin Ugalde parkean, 18:00etan. Bestalde, gaur eskuratu ahal izango da *Egunkaria*, *Irakeko bonben azpian* Lorea Agirrek idatzi duen kronika liburua.

Ordukoak bizi izan zituztenen artean, ibarreko hainbat zeuden, orduko *Egunkaria*-ren eta gaurko *Berria*-ren inguruan lanean dihardutenak: Mikel Lizarralde eta Idoia Etxeberria kazetariak, Arantzazu Arroia komertziala eta Fermin Lazkano *Egunkaria*-ko gerentea 1996ra arte.

ERASOAK JARRAITU EGITEN DU

Iazkoak ahazteko arriskuaren gaineko oharra izan daiteke gaurko eguna, eta, langile debagoiendarrok dioten moduan, "normaltasun egoeran" gaudela pentsatzeko arriskuaren inguruko oharra. Ibarrekook diote gauzak ez direla konpondu, ezta gutxiago ere; Iñaki Uriak atxilotuta jarraitzen duela gogorarazten dute, eta *Berria* egunero kioskoan dugun arren, euskararen aurkako eraso ez dela bukatu eta euskararen esparruan lan egiten duen edozeini gerta dakiokela.

Alde batetik, debagoiendarrok euskal gizarte osoak adierazitako elkartasuna nabarmentzen dute; baita *Berria* egunkaria ateratzeak ekarri duen lorpen handia ere. Baina salatzen dute eraso gehiago gertatu direla, eta euskal kulturaren aurkako eraso orokor baten barne kokatzen dute *Egunkaria*-ren aurkako operazioa. Hala, hori gogoan izatera gonbidatzen gaitu gaur arratsaldeko ekitaldiak.

MIKEL LIZARRALDE / ERREDAKTOREA

"Nahiko lasai gabiltza, baina babesgabetasunean gaude"

Kultura saileko erredaktore lanetan dihardu Mikel Lizarralde kazetari bergararrak *Berria*-n.

Zelan bizi izan duzu azken urtea?

Itxieraren ondorengoko lehen egunak izan ziren txarrenak. Jendearen babesak lagundu gintuen aurrera egitera. Hasierako helburua izan zen kolpe hari erantzutea, mobilizazioen eta proiektu berriaren bidez. Gizarteak euskarazko egunkari baten beharra aldarrikatu zuen.

Hasierako babes bera sumatzen duzue gizartearengandik?

Neurri batean, uste dut normala dela jendeak apur bat egoeraz ahaztea. Askok uste dute euskarazko egunkari bat itxi eta



orain beste bat badugula, eta egoera normala dela; baina Iñaki Uriak eta Xabier Alegriak kartzelan jarraitzen dute... Egoera ez da normala.

Etorkizuna zelan dator?

Nahiko lasai gaude, baina ezin dugu ahaztu babesgabetasun egoeran gaudela. Proiektu oso bat apurtu zuten.

ARANTZAZU ARROIABE / MARKETIN ARDURADUNA

"Estatuko egoera politikoak baldintzatzen gaitu"

Aretxabaletarra da Arantzazu Arroia. *Euskaldunon Egunkaria*-n egin zuen lan lehenengo, eta orain *Berria*-n dihardu.

Urriaren bigarren eraso jasan zenutenetik, zelan zaudete?

Bigarren eraso hura beste kolpe bat izan zen. Baina *Berria*-ren antolakuntza eta gestio osoa lege aholkularitzarekin egin da, eta ez dut uste aukerarik dutenik inondik kolpatzeko. Hala ere, ez dugu beste edozein elkarre edo komunikabideren normaltasunean bizi izateko aukerarik. Estatuko egoera politikoak baldintzatzen du proiektu osoa.

Zelakoak dira *Berria*-ren salmenta zifrak?



Oso onak dira. 22.000 bat aleko salmentak ditugu, 25.000ko tiradarekin, eta 11.400 bat harpide ditugu.

Zer jaso du *Berria*-k *Egunkaria*-tik?

Lantaldea eta 13 urteko esperientzia. Bagenekien egunkari bat egiten, eta hortik abiatuta, hobetzen saiatu gara.

IDOIA ETXEBERRIA / ERREDAKTOREA

"Jendea konturatu da euskal kulturaren zapalkuntzaz"

Berria-ko Tarte gehigarria dihardu kazetari onatiar honek. *Euskaldunon Egunkaria*-n kazetari zen itxieraren unean.

Zein izan da urte honetako ondorio positiboa?

Jendearen ahaleginak ahalbide du *Berria* egitea. Onena da *Berria* kalean dagoela. Era berean, gertatutakoak balio izan du jendea konturatzeko euskal kulturak jasaten duen zapalkuntzaz, ez bakarrik *Egunkaria*-k.

***Egunkaria* eta *Berria* ez dira berdin-berdinak.**

Hainbat atal eta gehigarri berriak dira, bai. Maketazio aldetik ere desberdina da. Ahalik eta produktu duinena egiten saiatzen gara egunero.



Egoera ez da normalizatu...

Ez. Iñaki Uriak kartzelan jarraitzen du; hori jendeak ahaztu du, beharbada, baina hala da, eta lehenbailehen konpondu beharreko gauza bat da. Bestalde, mehatxua ez da pasatu; lana normal egiten dugu, baina beldurrez gaude, ez dakigu-eta zer gerta daitekeen hurrengo.

FERMIN LAZKANO / 'EGUNKARIA'-KO GERENTE OHIA

"Euskalgintzako edonor eraso dezakete hurrengo"

Euskaldunon *Egunkaria*-ko gerente izan zen bergarar hau 1996ra arte. Atxilotuetako bat izan zen.

Ezer positiborik egon da urte honetan?

Ez. Jendearen elkartasuna naturala izan zen; nahiago hori beharrezko ere ez izatea. Txarrena..., ziurtasunik eza, bai pertsonalki, bai eta euskalgintzan ere. Ez digutenez salaketa konkreturik egin, ezin dugu behar bezala antolatu eta ez dakigu egoera honek noiz arte iraungo duen. Bestalde, orain egunkari berri bat egon arren, euskalgintzarendako egoera iaz baino askoz txaragoa da. Eraso euskalgintzako edozeini gerta dakiokela.



Plazagunea informatika enpresan diharduzu. Itxialdiak zelan eragin dio?

Orain normal egiten dugu lan, baina orduko gertakizunek kalte egin zioten, bai. Batez ere, irudi kontuengatik: askok zaku berean sartu zuten *Egunkaria*, Plazagunea eta beste hainbat enpresa.

TOLDOS LECE

Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto

Kataide Industrialdea 14 Musakola • ARRASATE • Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45
Mallabierna auzoa 6 • IURRETA • Bizkaia • Tel.: 94 681 76 19

Carrión música, s.a.

- Gitarrak, baxuak, anplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
- Pianoak eta trikitixak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.

Manuel Iradier 20 / Dato 42
Tel.: 945 23 07 49
GASTEIZ

NATUR HOUSE
Dietetika eta Elikadura

KONTSULTA DOHAINIK
Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.

EDURNE ARKAUZ
Dietetika eta Elikaduran Diplomatu

Maalako Errabala 27, behea ARRASATE Tel.: 943.79.04.34



Anjel Abalde, Ekologistak Martxan taldeko kidea, egin du hitzaldia.

IKER BARANDIARAN

Lurralde Zatiko Planak dituen alde guztiak aztertu dituzte Arrasaten

Alderdi politikoei, sindikatuei eta bestelako taldeei hartu dute parte

OIHANA ELORZA

Talde horiek Urkulu inguruan dagoen arriskua azpimarratu dute bereziki, baina baita autobide berriak eta Abiadura Handiko Trenak ekarriko duten kaltea ere. Debagoieneko Lurralde Zatiko Planaren alde on eta txarrak aztertu dituzte.

Arrasateko Ezker Batua, Aralar, Zutik, LAB, ESK, CC.OO, UGT, AHT Elkarlana eta Ekologistak Martxan taldeek aztertu dituzte, asteen, Debagoieneko Lurralde Zatiko Planak dituen arriskuak.

Talde horiek Urkulu inguruan dagoen arriskua azpimarratu dute, batez ere. Lurralde Zatiko Planean, urbanizazio eta konplexu handi bat aurreikusten da, eta horrek bertako nekazaritza arloa eta ingurumena hondatuko lituzke, hitzaldian parte hartu zuten taldeon arabera. Azkenaldian, sarritan entzun da proiektu hori bertan behera uzteko asmoa duela Eusko Jaurlaritzak. Talde ekologistek, aldiz, diote euren ez dutela inongo berri ofi-

ziazilik jaso. Anjel Abalde Ekologistak Martxan taldeko kidearen esanetan, "hori Bergarako alkatetaren esan duena da. Baina alegazioei erantzuten ez zaien bitartean, eta benetan egingo ez dutela esaten ez duten bitartean, horrek guretzat ez du baliorik". Abalderen esanetan, Lurralde Zatiko Plana egin dutenean, ez dute utzi partizipaziorako aukerarik, ez gizarteari ezta tokiko erakunde-erakunde ere, eta horixe da plan horrek hasieratik duen akatsik handiena. Abalde gogoratu du "ibarrereko udalek eta Mankomunitateak ere kritikatu egin dutela ez kontsultatu izana. Izan ere, arlo guztietan izan da handia partizipazio falta".

Talde ekologistek diote, oraindik ez dutela jaso Urkuluko planaren erabaki ofizialik

PLANAREN ALDE ONAK

Plan horrek dituen beste bi puntu beltzak autobidea eta Abiadura Handiko Trena direla esan du Anjel Abalde. Bere esanetan, horiek obra handiak dira, kalte handia egingo diote ingurumeneri, eta gure ibarrari ez diote mesederik egingo.

Lurralde Zatiko Planak alde onak ere badituela esan du Abalde. Esaterako, lurraldearen antolamendua planifikatzeko aukera ematen duela. Bestetik, tranbiaren proiektua ere oso garrantzitsua izan litekeela uste du. "Proiektu horrek ibar osoari emango lioke zerbitzua, benetan egingo balitz. Duela egun batzuk Alvaro Amman sailburua hemen izan zen, eta ez zuen gai horretaz ezer esan", dio Abalde.

Urkulun egin nahi duten parke tematikoa ere ondo ikusten dute, betiere nekazarien beharrik betetzen badira. Azkenik, plan horrek oinezkoendako guneak aurreikusten dituela esan dute, eta hori ere Debagoieneko Lurralde Zatiko Planak duen beste puntu on bat dela.

Hegoaldeko euskarazko testu zaharrena aurkeztu dute

Lazarragaren eskuizkribuak 100 orrialde ditu

O.E.

Juan Perez Lazarragak, Larrea dorreko jaunak, XVI. mendaren erdialdera idatzitako eskuizkribua da, eta Arabako euskara darabil. Koplak, bertsoak eta kontakizunak jasotzen ditu liburuak, gai profanoen ingurukoak.

Borja Aginagalde historialariak egin duen lehenengo azterketaren arabera, ez dago zalantzarik eskuizkribuaren egilea Juan Perez Lazarraga dela, Larrea dorreko jaunak.

Eskuizkribua liburu bat da. Plegu laurdenean dago eginda, eta 51 orri ditu; beraz, 100 orrialde baino gehiago. Orri zenbaki bikoitzengatik eta beste xehetasun batzuegatik, badirudi liburu luzeagoa osatzeko lan zirriborro edo zati bat dela. Lehen lau orriak

moztuta daude, baina gainontzeak erraz irakur daitezke. Orri ertzetan eta oinetan ohar mordoak dauka idatzita, horiek gaztelaz.

Eskuizkribua gai profanoetako da erabat: amodiozko koplak, bertsoak eta gisakoak. Pasarte batean, *eusquel erria* ageri da. Adituen ustetan, hegoaldeko euskarazko testu zaharrena da, eta Oñatiko euskara moldea darabil. Lazarragatarrak leinu zabala dira, adar asko dituzte Oñati eta Agurain nahiz Zalduondo inguruan. Erabiltzen duen euskara Arabakoa dela esan dute batzuek. Hizkuntzaren azterketa gehiago egingo dituzte aurrerantzean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu du eskuizkribu hau astean, eta digitalizaturik jarri du sarean. Helbidea: www.gipuzkoakultura.net/lazarraga.



Euskadi saria jaso du Jesus Mari Ugaldek

Bergarako Jesus Mari Ugaldek Euskadi ikerketa saria jaso du aste honetan. Bilboko Guggenheim museoan izan da sari ematea, eta Zientzia eta Teknologiako saria jaso du bergararrak. Jesus Mari Ugalde EHUko Kimika eta Fisika katedraduna da, eta Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuaren eskutik jaso zuen saria. Gizarte Zientziak eta Humanitateetako Jesus Altuna antropologoa jaso zuen. Juan Jose Ibarretxe lehendakaria ere egon zen sari banaketan./O.E.



**sagardo naturala
hernaniko sagardoa**

Gure bezero eta lagunei:

Aspaldi ezagutzen dugu elkar, eta, urtero bezala, garai honetan ateak zabaldu ditugu, gure sagardoa dasta eta edan dezazuen.

- Eguaztenetik zapatura, arratsaldez zabalik.
- Zapatueta, eguerdiz.



**Osinaga auzoa
Tel. 943 550 328
HERNANI**

Harrera ona izan du 'Astelehenerko Goienkaria'-ren lehenengo zenbakiak

Kioskoan erosita edo harpidetza bidez eskura daiteke

OIHANA ELORZA

Dagoeneko beste aldizkari bat dugu, astelehenero, kioskoetan: **Astelehenerko Goienkaria**. Orain arteko GOIENKARIAren osagarria da, eta asteburuak eman duen guztia jasotzeaz gain, asteak ekarriko duena ere badakar.

Santamas egunean atera zuen Goienak egitasmo berriaren zero zenbakia. Aste honetan, **Astelehenerko Goienkaria**-ren lehenengo zenbakia kaleratu du. Ibar oso-

ra heldu da. Edizio bera banatuko da aurrerantzean ere, astelehenero, herri guztietan. 32 orrialde ditu eta asteburuan gertatu direnak jasoko ditu.

GEUREAN, KIROLA ETA KULTURA

Hiru atal nagusi izango ditu **Astelehenerko Goienkaria**-k. Lehenengo atalak **Geurean** izena du, eta gizarte arloan, politikan edo ekonomian gertatu direnak jasoko dira sail horretan. Bigarren atal nagusia kirola da. Ibarreko taldeen emaitzak eta jardunaldiak jasoko ditu horrek. Kirol

guztiak sartzen dira atal horretan, eta maila guztiei egingo zaie jarraipena, hasi eskola kirolek, eta profesionaletaraino. Hirugarren atal nagusia kultura da. Asteburuan izan diren ekintza kulturalen berri emango du.

Horrez gain, asteak ekarriko duena ere jasoko du. Agenda zabal izango du. **Astelehenerko Goienkaria** astelehenero kaleratzen da eta eskuratzeko bi modu daude: harpidedun eginda 25 euro ordaindu behar dira urte osorako, eta bestela, kioskoetan erosu daiteke 0,80 euroren truke.



EDU MENDIBIL

Astelehenerko Goienkaria pasa den astean aurkeztu zuten Bergaran.

Begoña Lasagabaster Bergaran izan da astean

O.E.

Alderdi Popularrak azken agintaldian izan duen gehiengo absolutuarekin zer eta nola egin duen gogoratuz hasi zuen hitzaldia Begoña Lasagabasterrek. Jarraian, martxoaren 14ko hauteskundearen inguruan hitz egiten hasi zen. Lasagabasterren esanetan, Eusko Alkartasunak Madrilen egon beharra dauka, euskaldunon eskubideak zeintzuk diren esateko eta horiek defendatzeko bada ere.

Begoña Lasagabasterrekin batera, **Piti Madariaga** antzuolarra eta **Pello Urizar** arrasatearra eseri ziren mahaian. Entzuleen artean,



Eguaztenean egon zen Bergaran.

berriaz, EA alderdiko jarraitzaileak zeuden, eta baita **Iñaki Galdos** eta **Esther Larrañaga** alderdiko ordezkariak ere.

DEBAGOIENEAN LABUR

Luis Mari Azkargorta 'Kanto' aramaioarra Martutenetik Zaragozara eraman dute

Duela astebete eraman zuten Luis Mari Azkargorta Martutenetik Zaragozako Zuera espetxera. **Kanto** baldintzapeko askatasunean utzi zuten aske 2003ko urtarrilean, kartzelan 15 urte bete eta gero. Pasa den azaroan, ordea, berriro kartzelaratzeko agindua eman zuen Madrilgo Audientzia Nazionalak. Ordutik hona, Martuteneko espetxean egon da, baina pasa den egubakoitzean, Zaragozara eraman zuten. **Kanto** Bergaran bizi da. Orain, Bergarako preso guztiak, hamar, Euskal Herritik kanpora dauden espetxeetan daude.

Txinatar jatetxea
DRAGON ORIENTAL



EGUNEKO MENUA

Lehenengo platera
Udaberri-erroiloa
Entsalada txinatarra
Eta abar
Bigarren platera
Arroz frijitua hiru deliziarekin
Arroz-fideoak hiru deliziarekin
Eta abar
Hirugarren platera
Oilaskoa almindrekin
Ganbak berdurekin
Eta abar

Prezioa: 5,95 euro.

Edariak:
ardoa, ura, garagardoa edo freskagarriak.
Postrea:
flana, izozkia, fruta, mazedonia,
kafea edo tea.

Araba etorbidea 3 ARRASATE

Ipuin liburua doan!
Orain, urte osoko harpidetzaren truke, ipuin liburua etxean doan jasoko duzu.

Goienkaria
astelehenero, aste bukaera osoa

Hala bazan...
Debagoieneko
plazan.

Goienkaria

Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE

902 36 38 51

943 79 22 93

astelehenekoa@goiena.com
www.goiena.net

HARPIDETZA TXARTELA

Izendetiturak: _____

Helbidea: _____ Tel.: _____

Herria: _____ Kode postala: _____

Posta elektronikoa: _____

Non jaso nahi duzu? Etxean Kioskoan

Beste nonbait*

Harpidedunaren kontu korrantea (20 zenbaki):

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Urteko harpidetza: 25 € / 40 ale urtean

*Herriz kanpoko banaketa kasuz-kasu aztertuko da.

OÑATI

Unibertsitatean ezin dela ezkondu erabaki du Gobernu batzordeak

Gaur arte, ezkontza bakarra egin da Unibertsitatean, baina gehiago egiteko eskaerak jaso ditu Udalak. Kultura Sailak arautegi bat egin du, finkatuz noiz eta nola ezkon daitekeen Unibertsitatean, baina Gobernu batzordeak ez du proposamena onartu. Udalaren arrazoiak hauexek dira, besteak beste: herriak bi areto ditu ezkontza zibilak egiteko, ordutegia zabal da, ezkontzak 30 minutu irauten du gehien jota, eta, aurrerantzean, beste edozein eraikin izan lezaketete gustukoa ezkon gaiek./O.E.



ANTZUOLA

Txorikua etxea botata, Sagasti eta Kalegoi lotuko dituzte

Astelehenean hasi ziren Txorikua etxea botatzen, eta aurrera doaz lanak; orain, Sagasti auzunea eta Kalegoi lotuko dituen errepidea egokituko dute, Txorikua etxeak laga duen orubea aprobetxatuta. Beste astebete behar du lan hori egiteko. Oraingoan, behin-behineko errepidea egingo dute, baina, behintzat, zirkulazioari beste irtenbide bat emango zaio. Izan ere, kontuan hartu behar da Buztinzuri itxita dagoela, iraila ezker, urbanizazio lanak direla eta; horrek hainbat eragozpen sortu ditu zirkulazioan, azkeneko hilabeteotan. Kalegoi eta Sagastiko lotunea egiten dutenean, aldaketa ugari izango dira zirkulazioan: Buztinzuri noranzko bakarrekoa izango da, eta Sagastik, berriz, bi noranzko izango ditu. /A.I.

ARAMAIO

Adinaren muga ezabatu ezean, gazteak ez dira lokaletan sartuko

Hil hasieran, Udalak gazte lokaletarako zerrenda zabaldu zuen, lokaletan sartu nahi zuten gazteek izena eman zezaten. Baina inork ez du izenik eman. Hala, haiei galdetu diegu, eta zera erantzun digute: Udalak, besteak beste, 20 urteko adin muga ezarri zuela lokalak erabiltzeko. Eta erabaki horrekin ez daudela konforme. Erabili nahi duen edozein gazterendako izan behar dutela gazte lokalok. Eta baldintza hori aldatu ezean, inork ez duela izenik emango. Beraz, orain Udalak zer egiten duen ikusi behar. /U.M.

ELGETA

Inauterietako dantza saioa eta kontzertua izango dira gaur, barikua

Gaur, Inauteri-barikua, hainbat ekitaldi antolatu dituzte herria jai giroan ipintzeko. Arratsaldean eskolako umeak mozorrotuta irten dira kalera. Ondoren, 19:30ean, helduekin bat egin eta dantza saioa eskainiko dute plazan. Bestalde, gauean, kontzertua izango da gazte-terean. Itakun talde zestoarrak dantzarako doinu afrikarrak eskainiko ditu. Antolatzaileek bai plaza dantzara eta baita kontzertura ere mozorrotuta joateko gonbita egin nahi diete herritarrei /I.A.

BERGARA

Zuhaitz Eguna dela-eta, azoka izango da zapatuan San Martin Plazan

Zuhaitz Egunaren inguruan antolatutako ekitaldien barruan, baso lanerako tresneriaren erakusketak eta salmenta postuak izango dira bihar, zapatua, San Martin plazan, 09:30etik 13:30ak bitartean. Besteak beste, fruta-erbolak, mendiko erbolak eta etxea apaintzeko erabiltzen direnak ere izango dira ikusgai eta salgai zapatuko azokan. Era berean, zuhaitzen ezaugarrien gaineko erakusketa ikusgai jarriko dute. Udaleko iturrien arabera, azokak erantzun ona izan du azken urteotan.

EGUERDIAN LANDATZEA

Bestalde, zuhaitzak landatuko dituzte eguerdian Pol-Polen, Keixeta inguruan. Mariaren Lagundia, San Martin eta Aranzadi ikastetxeetako gaztetxoak gonbidatu dituzte landatzean parte hartzeko. Autobusak Ibargaraiko geltokitik aterako dira, 10:30ean. Santutxuraino helduko dira eta

handik Pol-Polera oinez edo Udalak jarritako lanberreren joateko aukera izango da.

Gaztetxoek Udaleko teknikarien eta Mendia Bizirik taldeko kideen laguntza izango dute landatzea egiteko. Bihar, 50 haritz eta beste horrenbeste pago landatuko dituzte. Landaketan parte hartzen duten neska-mutikoei, ogitartekoa, edaria eta kamiseta bana emango dizkiete.

2002ra arte Zuhaitz Astea ospatzen bazen ere, azken hiru urteotan Zuhaitz Eguna antolatu du Udaleko Ingurumen batzordeak. /E.M.

Landaketa

Eguerdian zuhaitzak landatuko dituzte da Pol-Polen, Keixeta inguruan. Bertan parte hartzeko gonbidatu dituzte herriko ikasle gaztetxoak.

ARRASATE

Emakume artistetan oinarritutako lana egingo du Melina Lopezek

Bigarren urtez irabazi du Melina Lopez eskulturagileak Emakume Sailak ematen duen Emakumeendako Beka. Horrenbestez, 3.000 euro emango dizkio, eta artista gazteak emakumeekin lotutako proiektua egin beharko du.

Astelehenean, hilak 16, prentsaurrekoa egin zuten proiektu horren berri emateko.

Eskulturagileak jakinarazi zuen zortzi emakume artista aukeratu dituela, haiek egin duten lana esanguratsua delako eta gustuko dituelako. Hala, eskulturak eta jantziak uztartuta, zortzi eskultura egingo ditu.

Gaineratu zuen uda baino lehen aurkeztuko duela egindako lana. /U.M.



Emakume Saileko ordezkariak eta Melina Lopez, prentsaurrekoan.

ARETXABALETAKO la zazpi milioiko udal aurrekontua onartu zuten 2004. urterako

Udal aurrekontua onartu zuen Aretxabaletako udalbatzak astelehenean egindako osoko bilkuran. PPko zinegotziak izan ezik, gainerako guztiek eman zioten aldeko botoa; PSE-EEkoa, ostera, ez zen agertu.

Udaleko gastuetarako 6.632.632 euro zehaztu dituzte, eta horri zaharren egoitzako eta Bihargintzako gastuak batuz gero, 6.967.689 euroko aurrekontua onartu zuten. Inbertsioetarako, ostera, ia bi milioi euro gorde dituzte, eta horietatik, 300 mila euro kultura ekipamenduetarako izango dira. /M.A.

ESKORIATZA

Hogeita sei urte Urdelardero egunak Inauteriei ongiatorria egiten

Eskoriatzarrek Urdelardero eguna ospatzen dutela 26 urte bete zirean atzo. Inauteriak iragartzen dituen eguna da Urdelardero. Kristautasunak era guztietako penitentzi, sakrifizio eta barauz osatutako denboratarrea ezarri zuen, hau da, Garizuma. Horri oreka bilatu guran, Inauteriak ospatzen hasi ziren. Eskoriatzako ikastetxeetako haurrek kalejira egin zuten herrian atzo, eguna, eta txistorra jan zuten; arratsaldean, Azkona taldearen eskutik jaialdia prestatu zuten antolatzaileek. /ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

LEINTZ GATZAGA

Adin guztietako herritarrendako ekintzak antolatu dituzte Inauterietan

Inauteri-zapatua ospatzeko hainbat ekimen antolatu ditu Gatzagako Udalak. Gazteenen gustuko jokoak egongo dira arratsaldeko 17:00etatik aurrera frontoian. Ondoren, herri txikitea egingo dute, jai giroan sartzeko eta afal orduko prestatzeko. Ostatu jatetxean elkartuko dira 21:00etan, eta afari goxoa, egin ondoren, musika izango dute, Aretxabaletako Basaberen eskutik. Jende guztia mozorroturik joatea gomendatu dute ospakizunen antolatzaileek. /ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Hizkuntza gutxituan kale-
ratzen diren egunkarieta-
ko kazetari batzuk Euskal
Herrian ibili dira aste honetan. Arra-
saten ere izan dira. Kazetarien arte-
an, *El Punt*-eko bat dago, eta hemen-
txe harrapatu du ETaren agiriak.

OIHANA ELORZA

Nola jaso duzu su-etenaren notizia?

Baionan nengoen, MIDASko gainon-
tzeko kideekin batera, eta segapotoan
mezu bat nuen, berehala Gironako erre-
dakziora deitzeko. Hara deitu, eta lanki-
de batek kontatu dit.

Ezusteko izugarria hartu dut. Ezuste-
an harrapatu nau notiziak, ez nuen inon-
dik inora espero. Oraindik goiz da balo-
razioa egiteko, baina ez dut uste honek
egoera konponduko duenik. Egia esan, ez
dut ulertzen, baina honek luze joko du.
Hauteskunde bezperan gaude ia, eta honek
ekarriko du zeresana. Kataluniako Gober-
nuan ere eragin zuzena izango duela iru-
ditzen zait.

Berez, bisitan etorri zara Euskal Herrira, baina orain, lan egitea ere egokituko zaizu agian, ezta?

Bai, bai. Hemengo kazetariekin egon
eta hitz egin nahi dut egoera hobeto eza-
gutzeko. Hemengo politikarien eta gizar-
tearen erreakzioak jaso nahi ditut, eta
horretan laguntzeko eskatu nahi diet.

MIDASen mintegian zinela harra- patu zaitu notiziak, Euskal Herrian. Nolako mintegia da?

Zazpi lagun gara, zazpi kazetari. Iis
Balearskoa, Eslovakiakoa, Tirolgoa, Ita-
liakoa, Finlandiako bi eta ni neu, Katalu-
niakoa. Esan bezala, zazpiok kazetariak
gara, eta hitzun gutxiko hizkuntzatan
kaleratzen diren egunkarietako kazetariak
gara, eta euskal prentsak bizi duen egoe-
ra ikustera etorri gara Euskal Herrira.
Horrez gain, euskararen beraren osasun
egoera aztertzeraz ere etorri gara. Jende-
ak euskaraz hitz egiten duen edo ez, gober-
nuak, Aldundiak eta bestelako institu-
zioek zer nola zaintzen duten...

Eta zer ikusi duzue?

Hizkuntza ezagutarazteko borondate
handia dago. Egitasmo asko antolatzen dira
euskara bultzatzeko eta kanpora aterat-
zeko. Baina, aldi berean, arazo asko dituen
hizkuntza dela konturatu gara. Agian ez
da behar beste lan egiten, euskara egune-
roko hizkuntza bihurtzeko, eguneroko
tresna izateko. Ez dakit gazteek beraien
hiztegi propiorik duten, beraien aisialdian
egiten dituzten ekitaldietan euskara era-
biltzen duten edo euskara horrelako ekin-
tzetara moldatuta dagoen edo ez.

Bestalde, euskararekin lotuta dagoen
edozer gaizki ikusita eta zigortuta dagoe-
la ikusten dugu Kataluniatik. Batez ere,
ikastolak. Askotan ikusi dugu ikastola eta
indarkeria elkarrekin lotu dituztela. Hone-
lako gertaerekin, zaila ere bada hizkun-
tza egunero erabiltzea, bat ere arazo edo
beldurrik gabe.

Askok diote hizkuntza gutxituetan bizi garenok ez dugula tokirik globa- lizazioaren garaian.

Hori ez da egia. Guztiz faltsua da. Hiz-
kuntzak nortasunaren ikur dira, eta aber-
asgarriak dira. Garrantzitsuena ahalik
eta hizkuntza gehien jakitea da, ahalik eta
jende eta herrialde gehienekin hitz egite-
ko eta, aldi berean, beste batzuei erakus-
teko. Herrialde bakoitzak, kultura bakoit-
zak, izateko era propioa du. Bere ohitu-



XABIER URZELAI

Maria Dolors Belles i Sabata

'EL PUNT' EGUNKARIKO KAZETARIA

“ETaren su-etenak, aldaketak ekarriko ditu Kataluniako gobernuan”

EUSKARA

“Jendeak ikaragarritzko indarra dauka
euskaren alde lan egiteko, baina behar bada,
erakundeen inplikazioa ez da nahikoa”

CAROD ROVIRA-ETA

“Hauteskundeetako aurre-kanpaina
notizia hau jakin baino
askoz lehenago hasi zen Katalunian”

rak, hitz egiteko eta komunikatzeko era
propioa. Hizkuntza ez da muga gainontzeko
herrialdeekin elkartzeko. Hori ez da ara-
zoa, nire iritziz.

Oso garrantzitsua da hizkuntzari eus-
tea, galtzen ez uztea. Oso tristea da esko-
lan dabiltzan haurrek beraien hizkuntzan
dauden jolasak ez izatea. Katalunian, esa-
terako, bost urte dituzten haur askok ez
dakite katalanez jolas egiten. Belaunaldi
batek ohitura hori galdu egin zuen. Non-
goa zaren jakitea oso garrantzitsua da

aurrera egiteko, eta nongoa zaren ez bada-
kizu, oinarritzko erreferente horiek falta
zaizkizu.

Martin Ugalde Kultur Parkean hasi
duzue bisita. Gaur urtebete da *Eus-
kaldunon Egunkaria* itxi zutela, eta
Iñaki Uria espetxean dago oraindik.

Lehenik eta behin, ulertezina egiten zait
demokrata dela esaten duen herrialde
batek komunikabide bat ixtea. Euskal
Herrian, tamalez, *Egin*, *Egin Irratia* eta
Ardi Beltza ere itxi zituzten. Baina are eta

harrigarriagoa iruditzen zait jendea ez
haserretzea, nahiz eta *Egunkaria*-k jende
askoren babesa jaso zuen, bai Euskal
Herrian eta baita beste herrialde batzue-
tan ere. Hau guztia euskal kulturarekin
lotura duen edozeren aurkako politika
baten barruan sartzen dela uste dut. Mar-
txelo Otamendik eta gainontzeko atxilo-
tuek jasan zituzten torturek, inkomuni-
kazioak eta tratuak eragin handia izan
zuten gizartean.

Bost urte edo gehiago luza daiteke auzi
hau, baina garrantzitsuena egunkari berri
bat sortu dela da. Beste guztia apurtzen
oso zaila den korapilo bat dela uste dut.

Iñaki Uria ez dut ezagutzen. Martxelo
Otamendi lehenagotik ezagutzen nuen,
baina Pello Zubiria aste honetan ezagutu
dut. Gaixo egonda ere, espetxean izan
zituena inkomunikazioak eta tratuak eta
familiarrekiko errespetu faltak ikaragarri
harritu gintuzten. Poza sentitu dut ezagutu
dudanean.

Euskal Herrian sortutako egitas- moak ikusten diharduzue astean. Tar- tean, Goiena Komunikazio Zerbitzuak ezagutu dituzue. Zer iruditu zaizu?

Oso proiektu interesgarria iruditu
zait, benetan. Hona etorri aurretik ez nuen
ezagutzen, baina arretaz jarraitu ditut
eman dizkiguten azalpenak. Katalunian
ezagutaraziko dut gero. Herritarren eta
herriaren beraren borondate handia dago-
ela ikusi dut. Katalunian, esaterako, ez
dago indar hori. Han, nahiz eta katalana-
ren egoera hain ona ez izan, katalana egu-
nero erabiltzen da eta jendea ez da horren-
beste borrokatu bere hizkuntzagatik, beti
erabili dutelako. GOIENA egitasmoa bera
oso indartsu ikusi dut, zorianak emateko
moduko proiektua dela iruditzen zait.

Jaurlaritzako Kultura Saila ere bisi- tatu duzue, ezta?

Bai, eta oso gauza harrigarria gertatu
zaigu han. Euskal Herriko bi neska dabil-
tza gurekin batera eta bestera laguntzen.
Euskaraz egiten dute dena, noski, eta
horrelaxe egin zuen batek han ere. Kul-
tura Sailak, ordea, gaztelaniaz edo inge-
leseaz hitz egiteko eskatu zion, hango itzul-
tzaileak euskaraz ez zekiela.

Horrek asko harritu ninduen; izan
ere, Katalunian asko zaintzen da hori, batez
ere aurrez hitzartutako bisitak eta eki-
taldiak direnean.

Katalunian jarraituz, Carod Rovi- rak ETarekin izan zuen elkarrizke- taren notiziak hasi zuen aurre-kan- paina?

Ez. Aurre-kanpaina askoz lehenago
hasi zen, hango parlamenturako hautes-
kundeetan PSCk eta ERCK egin zuten koa-
lizioarekin. Hori ez zuten ondo ikusi
Madrilgo alderdiek; hor hasi zen guztia.

Elkarrizketaren inguruko iritzia asko
daude. Gehienek, ordea, dialogoa babes-
ten dute baina elkarrizketa egiteko modua
ez zela zuzena uste dute. Dena den, jendea
oso haserre dago gaia nola tratatu duten
ikusita. Gainera, argi ikusi du benetan
agintzen duena Madrilgo alderdi sozialista
dela, ez PSC, eta hori ez zaie batere gus-
tatu.

Zer gertatuko da orain Carod Rovi- rarekin?

Egia esan, ez dakit zer erantzun. Ziur-
nago ETaren su-etenaren agiriak gauza
asko aldatu eta mugituko dituela. Kata-
luniako Gobernuan, esaterako, eragin
zuzena izango du agiri horrek, eta ondo-
rio asko ekarriko ditu.

Mintegiaren programa, orain kaze- tari lana ere bai; izango duzu lagunak bisitatzeko tarterik?

Nahiko nuke, bai. Nik Euskal Herri-
ko gertaerak idazten ditut *El Punt*-en, eta
ezagutzen dut hemengo egoera. Ez da nato-
rren lehen aldia, baina gurako nuke
hemengo lagunak agurtu.

Zabalik

MIKEL
LIZARRALDE

Gutuna

Aupa, K, aspaldiko! Zelan mugaz bestaldeko paraje horietan? Atxagak esaten zuen bezala, zoriontsuak al zarete hango biztanleak? Hala nahiko nuke, benetan.

Urtebete bada alde egin zenuenetik. Gogoratzen? Batzuoak oporretara joatekoak ginela, hemen gelditu behar izan genuen halabeharrez, Madrilgo epaile batek eguzkia hartzen utziko ez baligu bezala. Bai, K, badakit askotan berba egin dugula, telefonoz nahiz gutunez, mugaren alde honetan 2003ko otsailan gertatutakoaz; "txapal okerrek" euskarazko egunkari nazional bakarra indarrez itxi eta haien ziegetan hamar lagun, tartean Fermin, bost egunez izan zituztenekoak. Esango didazu badela gaur kontu berriagorik. Arrazoia duzu, K. Idatzi ahal nizuke herri honetan politikak hartzen dituen norabide ulergaitzei buruz, lau katu izanik elkar ulertzeko eta konprenitzeko ditugun arazoez, ETaren su eten "territorialaz", Iraken aurkitu ez dituzten armeez edota lau aste barru egingo diren hauteskunde horiei buruz.

Barkatuko didazu, K, baina gaur barruak beste zer edo zer eskatzen dit. Lorea lankideak *Egunakaria*-ren itxierari buruz idatzitako kronika sentimentalaren irakurketak korapiloa eragin dit eztaurretik hasi eta sabele-raino, hura berriro bizitzeak funtzio katartikoa izango balu bezala. Korapiloa sorrarazi dit duela lau hilabete eskas euskalgintzan jarduten duten beste zortzi lagun eramanez zuzentzen gogorazi izanak ere. Eta barrua astintzen dit, urtebete igarota, Inakik Aranjuezen segitu behar duela jakiteak. Horregatik, K, horregatik, barkatuko didazu oroimenaren zulo horretan sarrarazi izanak.

Kamixeta urdina jantzita, muxu handi bat.

Gutunak

Begiratu, ikusi, salatu

Atxiloketa. Bost egunetako inkomunikazioa. Beldurra. Bakardadea. Barruko bazter ezkuturen batetik datorren indarra. Nekea. Noraeza. Artikulu osoan jarraitu nezake horrela, baina ez dut nahi. Ez da nire asmoa hainbeste impresio nahasten dituen egoera irudikatu dezazuen. Bakar bat azpimarratu nahi nuke: begiak estalita mantentzea. Horixe egin zidaten egoera gogor hartan, nire inguruan gertatzen zena ikusi ez nezan, antifaza ezarri zidaten.

Torturaz mintzo naiz. Tortura, funtzionario publiko batek (hau da, estatuak eta ez psikopata batek) sufrimendu fisiko edo psikikoa eragiteko egiten duen ekintza da, zigortzea, beldurra sortzea eta informazioa edo aitorten faltsuak lortzea helburu duena. Inpunitate osoarekin egiten dute eta, askotan gainera, sarituak izaten dira torturazailerak (Kepa Urraren torturazaileraren kasua gogoratzea besterik ez dago). Zoritxarrez milaka euskal herritarrek jasan behar izan dugu. Iazko urtean bertan 90 salaketa egin zituzten, izaera ezberdinetako torturak salatzen zituztenak. Beti ez dira markak ikusten eta badi-rudi, Unai Romanorenak bezalako argazkiak edo Martxelo Otamendiren adierazpenak tartean ez badaude, zenbait ez zaizkiola sinesgarriak iruditzen salaketak (eta hainbati horienak ere ez). Gainera, gogoratu nahi nuke torturaren erabilpena gorputz polizial ezberdinek egiten dutela, baita Ertzaintzak ere.

Bestalde, jasandako torturak areagotu egiten dira emakumeon kasuan, jasotzen ditugun irain eta umilazio sexualak direla eta. Titipuntak atximurkatu; atzamar, esku edo bestelako objektuak baginatik sartu; galdeketa biluzik mantendu; hilerokoa dela eta irainak; gure seme alabak atxilotuta dau dela eta guri egiten diguten berdina egingo dietela mehatxuak; gorputz guztia ukitzea esku eta hankak lotuta eduki bitartean; bortxaketak... horiek guztiak eta gehiago. Gu makurtzeko helburuarekin egiten dizkigute, baina ez dute lortu, ez dute lortuko. Are eta gehiago indartzen da Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialerako konpromisoa.

Nazioarteko hainbat erakundek aspaldidanik eskatu dute torturaren abolizioa edo ezabaketa han eta hemen. Espainiako kasua behin baino gehiagotan salatu izan da, bai Euskal Herriatik bertatik (nahiz eta batzuk isilik mantentzen diren eta babesa

eskaintzen dioten) eta baita Amnistia Internazionala bezalako erakundeetatik ere. Hala ere, indar handiagoa eta gu guztion konpromisoa eskatzen du gaiak benetan zer-bait lortu dadin.

Lerro hauen bidez, dei egin nahi nuke, bakoitzak gure esparrutik torturaren aurka egin dezagun.

Eta une batez hasieran aipatu dudan egoerara itzuli gaituzten, atxiloketa eta inkomunikazio egoerara: Begiak itxita. Horrela mantenduko al ditugu gureak ere?

AXU CARDENAL, PRESO OHIA
Aretxabaleta

Debagoiena horri buruz

Gurean aspaldian nagusitzen ari den Debagoiena ibar-kontzepzio horren inguruan, zenbait galdera bota nahiko nituzke, politikari, gizarte eragile eta herritarrok orokorrean hausnar ditzagun:

1. Benetan ibar bat izan nahi dugu eta ibar mailan egin gure plangintzak? Plangintza zabalagoak egitea ez da izango herritarren partehartzearen eta udalen autonomiaren kaltetan?

2. Ibar mailako plangintzek garapen maila bera ekarriko diete ibarreko udalerririko guztiei? Ikus dezakegunez, zuntz optikoa sartzerako orduan epe ezberdinak dau da udalerririko txikiagoentzat.

3. Zer dela-eta bai informatiboki, bai lurralde plangintzetan Aramaio Debagoienean sartu nahi izate hori? Ez da izango iragarritako Lurralde Zatik Planak dakarren zoruaren okupazio masiboaren aurrean kota legalak betetzeko trukuren bat? Leintz-Gatzagarendako suposatuko duen triskantza bera ekarriko dio Aramaiori hurrengo planak hamasei urte barru?

4. Askotan aipatu izan dut gurean MCCren alde apustu gehiegi egin dugula eta arrautza guztiak otar berean jartzen ari garela. Iragarri berri duen 2008ra arteko Plan Markoan nabari den bezala apurka-apurka kooperatibak lana atzerrira eramaten hasten badira, zein da irtenbidea horren aurrean? Bigarren mailako kooperatibak sortzea, non bazkideek kapitala jarri duten enprekin konpartitu behar duten gestioa? Langileen koalifikazioa are-

agotzea? Eta industrian koalifikaziorik ez dugun jende piloarekin zer?

5. Behar ditugu benetan orain mahai gainean ditugun azpiegitura guztiak (Abiadura Handiko Trena, saihebidetako autopista, tranbia...)? Eta koiuntura ekonomikoak txarrera jotzen badu, zer?

6. Azken boladan gaitz guztietarako sendabide magikoa zerbitzu enpresa bat sortzea dela ematen du: euskararen herri mugimendua, zerbitzu enpresa; herri-komunikabideak, zerbitzu enpresa; mankomunitatea bera ere, zerbitzu enpresa...

Ez al ditu enpresa bihurtzeak herritarrengandik aldentzen? Zein herrigintza edo herrilan kultura bultzatu nahi dugu horrela belaunaldi gazteagoen artean?

7. Ez da euskararen aldeko herri mugimendua euskaldunentzako zerbitzuak sortzen eta hobetzen gehitxo saiatzeko ari, erdaldunak euskalduntzeko ekimenen kaltetan (Zahar-Berri proiektua, AEK bera...).

8. Goiena Komunikazio Zerbitzuak berau sortu zuen euskal mugimenduaren mugak gainditu dituen fenomeno da. Horrek errezeloak eta kezak sortzen omen ditu hainbat sektoretan. Nola uxatu kezka horiek? Bestalde, ez zen behar ere halako komunikabideren bat euskal hiztun ez direnentzat?

9. Agintaldi honetan kolore politiko bera dute ibarreko udaletxe guztiek, askotan gehiengo absolutuz gainera. Datozen bizpahiru urteotan gure ibarraren behin betiko eraentza finkatuko denez, horrek ez du galdatzen iritzi politiko ezberdinek eta gizarte eragile ezberdinek inoiz baino gehiago partehartzea gure udaletxeen dinamikan? Zeintzuk dira horretarako bide egokiak?

10. Gorabehera demografiko asko bizi-tzen ari gara azken urteotan: eroldak beherantz doaz udal askotan, nahiz eta biztanleria efektiboa gorantz joan beste indikadore batzuen arabera. Zein da horren arrazoia? Zein da mugimendu horiek kontrolatzeko tresna egokiena?

Guzti honen inguruan lehenbailehen eztabaidatzea ezinbestekoa dela uste dut. Horregatik, herritar eta gizarte eragile oro honen inguruan hausnartu eta ekimen ezberdinak bultzatzera plazaratu nahi dut. Herritarrok erabaki behar dugu non bizi nahi dugun eta zer utzi nahi diegun gure seme-alaba eta ondorengoei, ez dezala inork erabaki gure orde.

PATXI AGIRREBEÑA ZABALA
Debagoiena

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Mikel Irizarren alde

Nuria Agirrek bezala, nik ere GOIENKARIA esku artean jasotzen dudan bakoitzean, lehendabizi azala gainetik begiratu, eta berehala joaten naiz azken orrira, Mikel Irizarren zutabea irakurtzera.

Baina aurrera egin aurretik, eta inor engaina ez dadin, esan nahi dut antzinatek ezagutzen dudala Mikel, nire koinatua dela eta, hori baino areago, aspaldiko adiskide ona. Beraz, irakurle, jakinaren gainean zaude.

Badakit Mikelek ez duela nire laguntzarik behar, baina ikusita zenbaitek nolako zekenkeriaz hitz egiten duen, gorpuzak eskatzen zidan nik ere iritzia ematea, irakurlea naizen aldetik behintzat.

Hasi naiz esaten gustura irakurtzen ditudala Mikel Irizarren artikulua. Izan ere, nire iritziz, Mikel bihurtu da gure arteko idazlerik onenetako bat: ondo idazten du, garbi, eta edonork ulertzeko moduan. Ormaiztegiarra izan arren, gainera, gutariko askok baino hobeto ezagutzen du Debagoiena. Beraz, badaki zertaz ari den. Bere artikuluetan gustatzen zait erabiltzen duen tonua, jeneralean baikorra, eta sarritan umorez zipriztindua.

Eta, onar dezagun, berak eman die bizitasun apur bat gutunen orrialdeei, zeintzuk bestela etortzen baitira nahi baino panfleto gehiagorekin (bide batez, zuzendari jauna, ez legoke modurik panfletoei orrialde aparte bat eman, eta horrela gutunetatik bereizteko?), halakoa izan baita bere azken zutabeen eragina.

Baina nago Mikelek ez dituela hautsak harrotu bere artikuluei sua darielako, ez. Arizmendiren inguruan idatzitakoak ukitu zuen arazo bat, aurretik zegoena zornatuta, eta zornea irten. Berdin gertatuko zen artikulua lau hilabete lehenago (edo lau geroago) atera izan balitz.

Hala ere, esan behar dut gustura eta interes handiz irakurri nituela kritikak, artikulua hura zela-eta jaso zituenak, jeneralean ondo eta ganoraz idatzita zeuden eta. Eta errespetuz.

Baina joan den astean Sebas Etxeberriak Bergaratik idatzitakoak gehiago zirudien komisario politiko baten lana. Ezker abertzalearen izenean (ez zuen zehazten zer ezker abertzale, HB, Zutik, Aralar, Batzarre, Abertzaleen Batasuna edo zein, nahiz eta uste izatekoa izan lehenengoaz ari zela), salatzen zuen Mikel Irizarren “zutabetik arlo eta kolektibo desberdinak mintzen direla”, haren artikulua “harrokerian eta errespetu faltan oinarritzen” direlako.

Harritzekoa da alderdien babesean zein erraz hartzen ditugun jarrera mani-

keoak, zuri-beltzekoak, non, jakina, gu garen onak (eta herrikoiak, eta jatorrak...) eta besteak gaiztoak. Sebas, zuri ez bazaizu gustatzen Mikelek esana, esazu lasai, baina ez ezkutatu “arlo eta kolektibo desberdinen” atzean. Ala lau haizeetara zabaldu guran zabilta zeure alderdiak zerrenda beltzean jarri duela Mikel Irizar?

Ulertzen dut zuri ez gustatu izana Mikelek esandako zenbait gauza, sekula ez du euririk egiten denon gustura, baina zuk ez bezala, inoiz ez dut ikusi haren artikuluetan “harrokeria eta errespetu falta”. Aitzitik, uste dut artikuluoak abiapuntu lasaia markatzen dutela, eta errespetuan oinarritzen direla. Eta hori eskertzekoa da, guk horrelako tonu bat behar dugulako geure artean diskuti-tzerakoan.

Eta amaitzeko, hitz pare bat zuri, Mikel. Zure artikulua gero eta gehiago irakurtzen dira. Horren frogarik garbiena eztabaida hauek dira. Nahiz eta beti ados ez egon zurekin (ezta faltarik ere), askok oso gustura irakurtzen dugu *Piperrautsa*, iritzi-kazetaritzaren adibide bikaina delako. Eta ikusten duzu, bazter nahasletzat hartzen zaituztenek ere goitik behera irakurtzen dituzte zuk idatzitakoak. Bada zerbait.

Eutsi goiari!

JOXE ARANZABAL
Elorrio

Espainiar inposizioari ez esateko arrazoiak

Urteetan ezker abertzaleak eginiko lan eta borrokaren ondorioz, Euskal Herriaren markoaren inguruko eztabaida irekitzea lortu dugu. Autonomien estatua kolokan dago erabat, krisia eragin dugu markoan, eta jada gure herriaren aldetatik, autodeterminazioaz, zazpi herrialdeetatik eta herri galdeketatik hitz egiten da.

Herri honen gehiengo autodeterminazioa eta aldaketa politikoaren alde dago, Euskal Herriaren hitza eta erabakiaren alde. Erasoetatik babestuko gaituen aldaketa politikoa behar dugu. Espainiar inposizioak guretzat suposatzen duen guztiari ezetz esateko ueña behar du izan eta horren inguruan milaka herritar biltzeko gaitasuna badugula erakutsi behar diegu.

Hauteskunde hauetan ahalik eta indar gehienarekin espainiar ukazioari ezetz esatea da, beraz, gure helburua, Espainiatik datorrigun erasoaren tamainako erantzuna emanez.

Historikoki eta gaur egun herri gisa ukatu eta ezabatu nahi gaituelako esaten dugu ez espainiar inposizioari. Gu ez gara ez espainolak ezta frantsesak ere. Gu euskaldunak gara, euskal herritarrak, eta horrela agertu nahi dugu mundu guztiaren aurrean, gure naziotasuna aitortua eta errespetatua izan dadin.

Herri gisa dagozkigun eskubide zibil eta politikoak urratzen dituelako diogu ez espainiar inposizioari.

Autodeterminazio eskubidea ukatzen digu Espainiak. Euskal herritarrek birritan mintzatu dira, gehiengo zabalaz beti ere, autodeterminazio eskubidearen alde, bai kalean, bai erakunde ezberdinetan.

Espainiar Konstituzioa Euskal Herriaren aurka sortu zelako esaten diogu ez espainiar inposizioari. 25 urte beranduago, Konstituzioaren armak herri honen borondatearen aurka prest daudela gogoratzen digu Espainiak. Arma horiek, estatu terrorismoa, tortura, sakabanaketa, sufrimendua... dira.

Europa osoan parekotasunik ez duen apartheid egoera inposatu digulako esaten dugu ez espainiar inposizioari. Apartheid egoera horren baitan, ehunka plataforma legez kanporatuak izan dira, joko politikotik erabat baztertuak. Era berean, milaka herritar heriotza zibilera kondenatuak izan dira, eskubiderik gabeko herritarrek izatera.

Gure hizkuntzak, euskarak, irakaskuntzak eta kulturak, hainbat dekretu eta legeren ondorioz, mugarik gabeko erasoak pairatzen dituztelako aldarrikatzen dugu ez espainiar inposizioari.

Adierazpen askatasuna debekua zen zapiak estali duelako esaten dugu ez espainiar inposizioari. Gure ikurrak zapaltzen dituelako diogu ez espainiar inposizioari.

Gure baliabideak, natura dela, nekazaritza, arrantza, hirien planifikazioa, errepide eta garraioa, Madrilen agindu duen morrontzan inposatu nahi zaigulako diogu ez espainiar inposizioari. Lemoiz, NATO, Soldaduska armada espainiarrean inposatu nahi izan dituen Espainiari ez esaten diogu.

Europaren osaketa politiko eta ekonomikoan herri gisa partehartzeko aukera ukatzen digulako diogu ez espainiar inposizioari.

Aurrera begira, gatazka luzatu eta sufrimendua areagotzeko errezeta eskaintzen digulako diogu ez espainiar inposizioari. Azken 35 urteotako datuak kon-

tuan hartuta 5.300 euskal herritar izan dira torturatuak; 3.000 erbesterratu ezagutu ditu herri honek; 4.000 pasa dira espetxetik; 30.000 izan dira atxilotuak eta 318 hildakoak. Soilik miseria politikotik defenda daitezke horrelako ondorioak dakartzen sufrimenduzko errezetak.

DEBAGOIENENKO BATASUNA
Debagoiena

Euskara defendatu

Iazko urtea beltza izan zen euskararentzako, eta 2004a bide beretik doa. Izan ere, Frantziako Justiziak, adibidez, gogor zigortu ditu Demoak trenbideetan eseri eta hainbat tren geldiarazteagatik. Talde euskaltzaleak aurrera eramandako ekintza honek bi helburu zituen: alde batetik, salatzea SNCF tren konpainiak euskara erabat baztertzen duela eta, bestetik, eskatzea gure hizkuntza kontuan har dezala. Poliziak, gainera, Demoak Baionako epaitegitik kolpeka kanporatu ditu. Bitartean, Gernikan Ertzaintzak euskararen normalizazioaren alde gose greban ari diren euskaltzaleei galarazten ari zaie hainbat ekitaldi egitea. Baraualdiaren helburua Justizia Administrazioan euskararen normalizazioa eskatzea da, eta bi hilabete iraungo ditu (otsailaren 28ra arte). Hainbat talde parte hartzen ari dira: ELA, LAB, EHNE, Batasuna...

Era berean, euskararen normalizazioaren aurkako erasoak Justizia Administrazioako arduradunetatik ere bada-toz; Fernando Ruiz Piñeiro, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko presidente hautatua izan da orain gutxi, eta bere lehen adierazpenetan argi utzi du euskarari Justizia Administrazioan emango zaion papera: hutsaren parekoa.

Gure eskualdeko egoera konkretua ere ez da hobe, ez horixe; Bergarako epaitegian diharduten epaile guzti-guztiak erdaldunak dira.

Egoera negargarri honen aurrean, argi ikusten dut herritarrok gure hizkuntza defendatzeko beharrean gaudela, eta horretarako, Euskal Herriaren Euskaraz-ek antolatu duen manifestazio nazionalen parte hartzea ezinbesteko aukera deritzot. Hauek otsailaren 28an (zapatua) egingo dira Bergaran eta Gernikan. Kale agerraldi bien leloa berdina izango da: “Gure eskubidea delako, epaitegietan euskaraz”.

Animo ba! Gurea defenda dezagun!

GONTZAL LANDA
Arrasate

HURRENGO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

Zer da edo zein alderdik osatzen dute ezker abertzalea?

Goienkaria

DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Irabxe Bengoa, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Debagoieneko kirol txapelketen egutegia

Squash txapelketa abian da, eta laster hasiko dira gainontzekoak

Debagoieneko kirol zerbitzuek antolatzen duten kirol txapelketen egutegia dagoeneko osatuta dago. Aurten ere, kirol bakoitzak bere txapelketa eta bere egutegi propioa izango du, baita bete beharreko arau propioak ere.

SQUASHA, TENISA, PALA, ESKU PILOTA ETA FRONTENISA

Bost kirol mota horietako txapelketak antolatu dituzte. Denak

Debagoienerako zirkuituan sartzen dira, baina kirol bakoitza ibarreko herri ezberdinean jokatuko da.

Esaterako, esku pilota txapelketa Elgetan jokatuko da. Elgetako Udal Pilotalekuan jokatuko dira partiduak; gehienak, zapatu goizetan.

Pala txapelketa, aldiz, Aretxabaletan izango da, kirol etxean. Binaka jokatuko dira, 35 tantora, eta gomazko paletaz jokatzen ari diren guztientzat dago zuzendua.

Udaberriko frontenis txapelketa Arrasaten egingo da. Partidu horiek ere binaka jokatuko dira, Musakola kiroldegian, zapatuetan.

Bergaran tenis txapelketa jokatuko da, Labegaraietako kiroldegian. Partiduak hiru fase-tara jokatuko dira eta pilotak Bergarako Kirol Zerbitzuak jarriko ditu. Bi fase izango dira.

IZENEMATEAK

Squash txapelketa dagoeneko abian da, Oñatiko Zubikoa kiroldegian, eta gainontzeko txapelketak datozen egunetan hasiko dira; izenemate epea zabalik dago. Txapelketetan parte hartzeko zenbat ordaindu behar den, partidak zein orduetan izango diren, eta bestelako argibideak, herri bakoitzeko kirol zerbitzuak emango dizkizue. Ibarreko edonork har dezake parte.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

- Antzuola 943 76 62 46
- Aretxabaleta 943 71 26 28
- Arrasate 943 77 16 77
- Bergara 943 77 91 67
- Elgeta 943 76 80 22
- Oñati 943 71 63 75

	urtarrila					otsaila					martxoa					apirila					maiatza					ekaina					uztaila					abuztua					iraila					urria					azaroa					abendua				
	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5										
Aretxab.											PALA					SQUASHA															ESKU PILOTA																													
Arrasate											FRONTENISA					ESKU PILOTA															SQUASHA																				Frontenis									
Bergara											TENISA					FRONTENISA															PALA																				Pilota									
Elgeta											ESKU PILOTA					PALA																																			Pala									
Oñati											SQUASHA					TENISA																																								Tenisa				



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

GRAN VITARA 3 / 5 ate
Leku guztietara eramango zaituzten 3 edo 5 ate!



KANPAZAR

TAILLERRA: Bizkaia etorbidea z/g
Tel.: 943 79 41 98
ERAKUSKETA: Araba etorbidea 32
Tel.: 943 79 77 66
ARRASATE
kanpazar@euskalnet.net

Podiuma

Kirolabur

Iker Egaña | PRESTATZAILE FISIKOA |

OIHANA ELORZA

Eibar futbol taldeko prestatzaile fisikoa da oñatiarra, eta taldea oso ondo dagoela esan digu. Astean, ia egunero entrenatzen dira, Abadiñon, eta taldea behar bezala prestatzen du Ikerrek, entrenatzailearekin batera. Domekan, Salamancaren aurka jokatuko dute, etxean.

Zein da zure lana, zehazki?

Jokalariak fisikoki ondo egotea da nire ardura. Berez, Eibar-ko maila nagusiko jokalariek eta oinarritzko mailan dabiltzanak zaintzen eta prestatzen ditut. Taldeko ekipo tekniko osoarekin batera egiten dut lan, entrenatzaileekin eta medikuekin batera. Entrenatzaileak taldearen teknika eta taktikak lantzen ditu, eta ni jokalarien egoera fisikoaz arduratzen naiz, baina batera goaz, elkarrekin egiten dugu lan.

Beraz, taldeak galdu egiten badu, zure errua ere bada?

Bai, bai, denon errua da. Ez bakarrik jokalaria edo entrenatzailearena, guztiona da, eta nirea ere bai. Baina emaitzari begiratu bakarrik ez, jokalarien egoerari ere kasu egin behar zaio. Gertatzen da partidua irabaztea gaizki jokatu arren, eta jokalarien egoera fisikoak zerikusi handia izan dezake horrelakoetan: azkarregi nekatu delako, gorputzak erantzun ez diolako... Eta hori aztertzea prestatzaile fisikoaren lana da.

Eta arazoa psikologikoa bada?

Ezin dira alde biak banatu, elkarrekin doaz. Fisikoki ondo egon edo ez, jokalaria ezin duzu mehatxatu, iraindu edo zigortu taldeak ez duelako lortu espero zuten emaitza.

Zer gertatu zaio Pantaniri?

Pena izugarria hartu nuen hil egin zela jakitean. Eta are han-



Sailkapeneko seigarren postuan dago Eibar.

“Gainbeherari aurre egitea oso gogorra da, laguntza behar da, eta hori behar zuen Pantanik”

diagoa, hotelean, bakarrik hil zela entzun nuenean. Punta-puntako txirrindularia izan da Marco Pantani, baina justiziak sekulakoak egin dizkio. Indar handia behar duzu horrelako egoera bati aurre egiteko, eta Pantanik ez zuen horrenbestearinokoa. Psi-

kologikoki ahula zen Pantani, eta ezin izan dio presioari aurre egin. Duela astebete hil da, baina aspalditik zegoen hiltorian.

Ezin izan dio, beraz, gainbeheraren pisuari eutsi.

Ez. Elite mailako kirolariei maiz gertatzen zaie hori. Emai-

tza onak lortzen diren urteetan, denak daude laguntzeko gertu, baina behin aldapan behera hasiz gero, inor ez da inorekin akordatzeko. Eta Pantaniri hori gertatu zaio, laguntza behar zuen.

Batzuek prestatzaile fisikoaren edo medikuen laguntza izaten dutela entzun izan da askotan.

Bai, baina profesional batek badaki zer eta nolako laguntza behar duen. Badaki medikuak esandako edozein gauza ezin duela egin, eta zer produktu hartu dezakeen ere, ondotxo daki.

Eskola kiroltan ere nolabaiteko substantzien aipamena egiten dela entzun dut astean irrati tertulietan.

Nik neuk ez dut hori ikusi eta ezin dizut zehaztu, baina egia bada, tamalgarria iruditzen zait. Txikitatik erakutsi behar zaie kirola egiten, ez ikuskizuna ematen. Esaterako, ura noiz eta zein kantitatean hartu behar den jakitea ere garrantzitsua da.

Nola daude Eibar futbol taldeko jokalariek?

Oso ondo. Lan egiteko gertu daude guztiak.

Eta Jon Urtzelai oñatiarra?

Hura ere ondo. Lesionatuta egon da, baina uste dut jokatzeko moduan dagoela, eta Salamancaren aurka jokatzeko moduan izango da. Astean, ordea, beste jokalaria bat lesionatu zaigu, Jon Cortina. Hilabete eta erdi inguru egongo da jokatu gabe.

Aloña Mendi taldean urtean jokatu duzu. Nola ikusten duzu gaurko Aloña?

Joseba Molinero eta Xabi Elgero lan bikaina egiten ari direla ikusten dut. Orain lesio asko dituzte taldean eta hori arazoa da, baina, orokorrean, oso ondo ikusten dut taldea. Sailkapenean laugarren postuan daude, eta herriko jokalaria eta zaleekin daude han, eta hori oso ona da.

PILOTA/DEBAGOIENA

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak beste txartel bat atera du: *Pilotari herrikoia- ren txartela*. Federatuta ez dauden pilotarientzat da; lagunartean pilotako edozein jokamoldean aritzen direnentzat eta baita euskal pilotako herri txapelketetan antolatzaile eta parte-hartzaileentzat. Txartelak, gainera, kirol mutualitatean aseguru medikua eta erantzukizun zibileko aseguru eskaintzen ditu. Horrez gain, beste hainbat abantaila ere baditu, aholku liburu bat oparitan, eta beherapenak erosketak egiterakoan, esaterako. Kreditu txartelaren itxura bera dauka eta Gipuzkoako Federazioan edo herriko pilota elkar- tearen bitartez eskura daiteke. 28 euro balio du.

TXIRRINDULARITZA/OÑATI

Txirrindularitzako taldeen aurkezpena egingo duite zapatuan, 11:00etan, Etxe-Aundi jatetxean. Amateur mailako taldeak, gainera, beste izen bat izango du hemendik aurrera: Lizarralde Kirolak-Logistika Aldekoa. Gainontzeko taldeek, berriz, ULMA izenarekin jarraituko dute lasterketak egiten.

KROSA/OÑATI

Ainhoa Ugarte oñatiarrak Euskadiko Kros Txapelketan hartuko du parte hila honen amaieran, Ortuellan. Domekan, Gipuzkoako eskola arteko txapelketa egin zuten Hernanin, eta oso ondo aritu zen Ainhoa. Denboraldi osoan ere emaitza onak lortu ditu eta horregatik sailkatu da alebin mailako Euskadiko Kros Txapelketarako.

SASKIBALOA/ARRASATE

Ointxe-Arrasate saskibaloia irabazi ditu, eta bihar zazpigarrena gura izango du. Jaitsiera fasean dabil, baina emaitza horiekin, mailari eutsiko diola dirudi. Hori da taldearen asmoa.



Aretxabaletan... Residencial Beroa

Zure etxe berria **Residencial Beroan** aurkituko duzu.

Etxebizitzak, apartamentuak, atikoak, duplexak,

zure neurria. Zure familiaren neurria.

1, 2, 3 edo 4 logelakoak. Oraindik ere aukera dezakezu!

Informa zaitetz Aretxabaletako bulegoan.

Belorrieta Auzoa, 13 (obren aurrean). Tel. 943 711 770





EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO

Euskal Okela, Eusko Labela duen bakarra



EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO
BAIMENDUTAKO HARATEGIA



EUSKO LABELA DUEN BAKARRA

Euskal Herrian dauden haragi mota eta marka desberdinen artean Euskal Okela bereizten da. Ez dago besterik hau bezain zorrotza denik, 90 parametro baino gehiago kontrolatzen baititu.



HARATEGIA CARNICERIA

ENV. ONIZ: 19.02.04
TIPO MOTA: TXAHALA
RAZA ARRAZA: PIRENAICA
CROITAL Nº: 315615
KROITAL ZK.

Berau da bakarra Euskal Herritik kanpo jaiotako animaliak onartzen ez dituen, eta modu naturalean eta jaki nobleekin soilik elikatzea behartzen duena. Hasieratik amaierara prozesu osoa kontrolatuz

Benetakotasun Etiketa

ANTZUOLA
GABILONDO ARREGI HARATEGIA
KALEBARREN, 14

ARAMAIO
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8

ARRASATE-MONDRAGON
LANDALUZE HARATEGIA
ITURRIOZ, 7

JOSE MARI SALEGI HARATEGIA
OLARTE KALEA, 20

AZPILIKUETA HARATEGIA
DOCTOR BAÑEZ, 10

AZPILIKUETA HARATEGIA
ERGUIN, 12

KORTABERRI HARATEGIA
ANTXO ABARKA, 1

BERGARA
ANDRES MUJICA HARATEGIA
DOMINGO IRALA, 5

BIXAIN HARATEGIA
AZOKA PLAZA PTO. 5-6

ALDAI HARATEGIA
ESPOLON, 12

ESKORIATZA
ZUBIA HARATEGIA
SANTA ANA, 11

OÑATI
ANTXON HARATEGIA
SAN LORENTZO, 5

TARSICIO HARATEGIA
PORTU KALEA, 2

GARAY HARATEGIA
MAIATZAREN LEHENA PLAZA, 2

SUPER BM OÑATI-HARATEGIA
OLAKUA AUZOA, 8



IKER

SUKALDEAK: Udala Plaza z/g, Arrasate / 943 79 00 43 **BAINUAK:** Zarugalde 52, Arrasate / 943 79 99 42

ETA ORAIN ONATIN ERE BAI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR 

Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko otsailaren 20a

Kultura
eta
aisialdia



Otsailaren
20tik 27ra



Argazkiak, goitik behera:
'Atxarte' / Benito Cantero
'Bardeak (intsektua)' / Josu Garai
'Elur paisaia' / Manolo Urtubi
'Musikariak' / Karmel Uribarren



AFIZIOZ ARGAZKILARI

Debagoienean argazkilaritzarako zaletasun handia dago; horren adibide dira Aretxabaleta, Arrasate eta Bergarako argazki taldeak. Baina, taldeetan baino gehiago, beraien kasa ibiltzen dira ibarreko argazkilaritza-zaleak. Bergarako Pol-Pol dugu, agian, argazki talderik sendoena; Euskal Argazki Federazioko kide den ibarreko talde bakarra da, eta, horrez gain, lehia-keta, ikastaro eta irteerak antolatzen ditu.

Baina, talderik gabe ere, argazki bikainak egingen dituzte ibarreko argazkilaritza-zaleek. /15
USOA AGIRRE

**GOIESKOLA**

Debagoieneko
Euskal Eskola Publikoa

Elkano 10, behea • 20500 ARRASATE
Tel.: 605 773 993
e-posta: goieskola@euskalnet.net



*Aniztasunarekin
denok irabazten dugu!!*

MATRIKULA EPEA
Otsailaren 16tik 27ra

ESKORIATZA
GATZAGA
Luis Ezeiza

ARETXABALETA
Kurtzebarri LH
Kurtzebarri BHI

ARRASATE
Arrasate Herri Eskola
Arrasate-Aretxabaleta
institutua BHI

ARAMAIO
San Martin LH

OÑATI
Errekalde LH
Zuazola Larraña BHI

BERGARA
San Martin Agirre LH
Ipintza BHI

ANTZUOLA
Herri Ikastetxea LH

ELGETA
Herri Ikastetxea LH

ESKAINNTZA ZABALA

HAUR HEZKUNTZA

0-2 URTE
2-6 URTE

LEHEN HEZKUNTZA

6-12 URTE

DBH

12-16 URTE

BATXILERGOAK

16-18 URTE

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
NATUR-OSASUN ZIENTZIAK
- TEKNOLOGIA

HEZIKETA ZIKLOAK:

ERDI MAILA

- MEKANIZAZIOA
- EKIPO ETA INSTALAZIO
ELEKTROTEKNIKOAK
- ADMINISTRARITZA KUDEAKETA
SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA
- KONTSUMORAKO EKIPO
ELEKTRONIKOAK
- IBILGAILUEN ELEKTROMEKANIKA
- ERIZAINZAKO ZAINZA OSAGARRIAK
- KIROL EKINTZEN GIDARITZA
- MAKINERIAREN MANTENU
ELEKTROMEKANIKOA

GOI MAILA

- GALDAKETA ETA PULBIMETALURGIA
BIDEZKO PRODUKZIOA
- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA
- ERREGULAZIOA ETA KONTROL SISTEMA
AUTOMATIKOAK
- MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA
- PLASTIKOAK ETA KAUTXUGINTZA
- METAL ERAIKUNTZAK

HEZKUNTZA EZ ARAUTUAN ESKAINNTZA ZABALA:

- LANGILE ETA LANGABEENTZAT

ARGAZKILARITZA/ IBARREKO ARGAZKILARITZA-ZALEAK

Momentua harrapatzearen arteaz

DEBAGOIENEAN ARGAZKILARITZA-ZALE ASKO DAGO, ETA GEHIENEK DUTE INTERES KOMUN BAT: NATURAREKIKO MAITASUNA

USOA AGIRRE

Irudi batek mila hitz baino gehiago balio omen du. Baina irudi on bat lortzea mila hitz esatea baino zailagoa izan daiteke. Iru-dietan adituak direnak baditugu ibarreen, eta horietako laurekin egin dugu hitzordua: Josu Garai, Manolo Urtubi, Benito Cantero eta Karmel Uribarren argazkilariekin.

XV. mendean Leonardo da Vinci italiarrak kamera iluna asmatu zuenetik gaurko egunera arte, garapen izugarria izan du argazkilaritza. XIX. mendean ordu erdiz egon behar izaten zuen Daguerre artista frantziarrak argazki bat egiteko. Gaur egun, ordea, badaude segundoan zortzi argazki egiten dituzten argazki kamera digitalak. Teknologia berriek argazkiak ateratzea erraztu dute. Egun, kamera bat duen edozein da argazki bat egiteko gai. Baina argazki onak ateratzeko zaletasun eta esperientzia handia behar da.



JOSU GARAI

Josu Garai oñatiarrak mendia du argazkietarako gai nagusi. Urbian ateratako argazkia da honako hau.

HIRU ARGAZKI TALDE IBARREAN

Aretxabaletako Argazki Taldea, Arrasateko ASA eta Bergarako Pol-Pol ditugu Debagoieneko argazki taldeak. Baina talderik ez dagoen herrietan ere badago argazkilaritza-zalerik; horren adibide dugu Josu Garai oñatiarra. Duela gutxi, gainera, 2003 Pyrenaica saria jaso du *Urban Txi-rinduz* izeneko diapositiba sortagatik.

Bergarako Pol-Pol argazki taldean 20 bat kide dira, eta beraien zaletasuna konpartitzeko irteerak egiten dituzte. Bestalde, bergarar guztiei zuzendutako ikastaro eta lehiaketak ere antolatzen dituzte. Arrasateko ASA argazki taldeak ere ikastaroak egiten ditu Arrasateko Udalaren laguntzarekin, baina talde moduan irteera gutxi egiten dituzte. Aretxabaletan ere bada argazki taldea, baina argazkiak egiteaz baino, gehiago arduratzen dira erakusketak antolatu eta argazki artxiboa osatzeaz.

Josu Garai: natura, lehenengo gaia

Mendizalea da Josu oñatiarra; mendian egiten ditu argazki gehienak. Natura da bere argazkietarako lehenengo gaia. Azaldu digunez, bakarrik joaten da gehienetan argazkiak egitera, bere kontura ibiltzea nahiago izaten baitu. Hala ere, mendira joaten den bakoitzean ez du kamera eramaten.

Lehiaketetara aurkezten ditu bere argazkiak eta duela gutxi 2003ko Pyrenaica saria jaso du *Urban Txi-rinduz* izeneko diapositiba sortagatik. Sariare-



kin oso gustura dagoela aitortu digu Josuk. "Zaletasunez argazkilaria garenondako oso ona da horrelako aitortpen bat jasotzea, azken baten, horrek gure lana erakusteko aukera ematen baitigu".

Orain dela urte batzuk bazegoen argazkilaria taldetxo bat Oñatin; orain, aldiz, ez dago argazki talderik bertan. Hala ere, argazkilaritza-zale asko dagoela esan digu Josuk. "Badaude oso argazkilaria onak direnak gure herrian, baina taldeari tira egiteko norbait behar da".

Manolo Urtubi: herriz herri argazkilaria

Duela 35 bat urte hasi zen Manolo argazkiak ateratzen, baina betidanik eduki izan du argazkiak ateratzeko zaletasuna. Aitortu digunez, bere bizioetako bat da argazkiak ateratzea. "Ehiztarie, adibidez, eskopetarekin tiro egitea gustatzen zaie; niri kamerak argazkia ateratzeko egiten duen klik soinua entzutea gustatzen zait".

Aretxabaletako Udal Artxiborako egiten ditu orain argazki gehienak, baina badu buruan beste proiektu bat ere: Euskal



Herriko herri guztiak bisitatu eta argazkiak ateratzea. Oraingo, Gipuzkoako herrietako argazkiak bildu ditu gehienbat, baita Bizkaiko batzuk ere.

Kamera digitalen gainean galdetzerakoan, analogikoen aldekoa dela esan digu Manolak. "Nire modukoren bat kamera digitalarekin ikusi arte, ez dut nik horrelakorik erabiliko".

Aretxabaletako Argazki Taldeko kidea Manolo, baina argazkiak ateratzeaz baino artxibatzeaz eta erakusketak antolatzeaz arduratzen da taldea.

Benito Cantero: kamera beti besapean

Bergarako Pol-Pol Argazki Taldeko kidea da. Duela 28 bat urte hasi zen serio argazkiak egiten, baina betidanik gustatu izan zaio argazkilaritza. Euskal Argazki Federazioan dagoen ibarreko argazki talde bakarra da Pol-Pol, eta 20 bat kide biltzen dira taldean. "Argazkilaria taldea baino gehiago, lagun taldea da. Astelehenero batzen gara lokalean, eta lan pixka bat egin ondoren, txikiteoan irteten gara".

Taldekoek irteerak egiten dituzte mendira eta hainbat herritara, betiere kame-



ra besapean hartuta. Horrez gainera, lehiaketak, ikastaroak eta argazki rallya ere antolatzen dituzte. Horren harira, Bergaran argazkiak egiteko zaletasun handia dagoela esan digu Benitok.

Argazkilaria izatea zaletasun garestia den ere galdetu diogu. Bere iritziz, ez da garestia, baina nork bere muga jarri behar du horretan ere: "Niri garestiagoa iruditzen zait erretzea, eta jende askok egiten du hori. Argazkilaritza zaletasun garestia izan daiteke, baina polita da".

Karmel Uribarren: erreportajeak amets

Arrasateko ASA Argazki taldearen sortzaileetako bat da Karmel. Orain dela 15 bat urte sortu zuten taldea. Gaur egun, baina, ez da taldean gehiegi ibiltzen, denbora falta dela-eta. Hala ere, asko jaitsi da taldearen dinamika azken urteotan; lehenago, lehiaketa eta irteera gehiago antolatzen zituzten.

Ez du bereziki argazkia egiteko gai bat Karmelek: "Denetariko argazkiak egitea gustatzen zait; mendia, erretratuak, herrietako jendea... Baita argazki artistikoak



ere". Orain dela urte batzuk Guatemalan izan zen, eta oso kuttunak ditu hango jendeari egindako argazkiak.

Mendira joaten den guztietan argazki kamera aldean eramaten duela aitortu digu, eta zera gura luke Karmelek: munduan zehar argazki erreportajeak egiten ibili.

Oraindik egin ez badu ere, kamera digitala erosteko asmoa du. "Beste edozein kamerak dituen ezaugarriak ditu digitalak, eta niretzako modukoa aurkitzean erosiko dut bat".

Otsailak 20-27

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

DEIAK

ANTZUOLA

► **Klimatologia eta tenporak** hitzaldia egingo du Pello Zabalak eguenean, hilak 26, Olaranen, 18:00etan.

ARAMAIO

► **Lo que el viento se llevó** filma eskainiko dute gaur, egubakoitza, liburutegian, 22:00etan. Sarrera euro bat kostatuko da.

ARRASATE

► **Boliviako egoeraren berri** emango du Humberto Mancilla zinemagile boliviarrak gaur, egubakoitza, Monterronen, 19:30ean.
► **Ludoteka ibiltaria** Musakolan egongo da, San Antolinen, bihar, zapatua, 11:00etatik 13:30era bitartean.
► **Katxalin** bularreko eta ginekologia-ko minbiziak kaltetutako emakumeen elkartearen aurkezpena egingo dute eguenean, hilak 26, Emakume Txokoan, 16:30ean.

BERGARA

► **Zezenale elkarteak** bilera egingo du gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:30ean.

DEBAGOIENA

► **Ilatargi astronomia elkarteak** bilera egingo du gaur, egubakoitza, Bergarako kultura etxean, 18:30ean. Gorrara joango dira izarrak begiratzera.

ESKORIATZA

► **Mozorrotutako tabernen lehiaketako** sari banaketa egingo dute bihar, Aratuste Zapatua, Herriko Plazan, 00:00etan.

OÑATI

► **Ate ireki eguna** deitu du Elkar Hezi ikastetxeak biharko, zapatua. Santa Eskolastika ikastetxean izango da, 16:00etatik 19:00etara.
► **Ezker abertzaleak** hauteskundeen gaineko ekitaldia egingo du bihar, zapatua, Foruen Plazan, 12:30ean.
► **Hijo, cuidate** 12-18 urte bitarteko- en gurasoendako hitzaldia egingo dute hilaren 26an, eguena, Elkar Hezi ikastetxean (Santa Marina plazan), 19:00etan.

► **Sex Pistols** punk taldearen inguruko bideoa eskainiko dute eguenean, hilak 26, gaztelekuan, 22:30ean.

MUSIKA

ARETXABALETA

► **Karidadeko Benta** Jon Maiaren taldeak kontzertua eskainiko du datorren egubakoitzean, hilak 27, Kurtzebarri eskolan, 22:30ean. *Bertso, koplak eta munduko doinuak* diskoa aurkeztuko dute.

ARRASATE

► **Aratuste kontzertua** eskainiko dute Arrasate Musikaleko ikasleek gaur, egubakoitza, euren eskolan, 18:30ean.
► **Soziedad Alkoholika** taldearen emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean. Sarrera 4 euro kostatuko da.
► **Djamborée** taldeak perkusio afrikar emanaldia eta su ikuskizuna egingo ditu bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

► **17 años Golden** ikuskizuna eskainiko du Golden Apple Quartet taldeak etzi, domeka, Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

► **Arrasate Musikaleko Bandak** kalejira egingo du martitzenean, hilak 24, 19:00etan. Aurtengo gaia futbola izango da. Besteak beste, Realen eta Athleticen himnoak joko dituzte.

BERGARA

► **Udal Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren** emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, pilotalekuan, 22:30ean. Sarrera 5 euro kostatuko da eta Aljeriako errefuxiatu sahararrendako izango da dirua.
► **Brigada Criminal eta Dragon Fly** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, San Martin plazan, 22:30ean.
► **Rio Samba Show** taldearen dantza ikuskizuna eta batucada egongo dira martitzenean, hilak 24, pilotalekuan, 18:00etan.
► **Inauteriak 04- Techno-house jaia** antolatu dute biharko, zapatua, Jam aretoan, 00:00etan. Sarrerak 12 eurotan salduko dituzte.
► **Michael Schenker** musikariak emanaldia egingo du datorren

egubakoitzean, hilak 27, Jam aretoan, 22:00etan.

DONOSTIA

► **Lausardi abesbatzak** emanaldia egingo du bihar, zapatua, Kursaal, 12:00etan.

ANTZERKIA

ANTZUOLA

► **Potxin eta Patxin** pailazoaren emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, pilotalekuan, 17:00etan.
► **Antonino Apreta** ipuin kontaketa egingo du Gorringo taldeak bihar, zapatua, liburutegian, 18:00etan.

BERGARA

► **Majia-ja-ja** magia eta umore ikuskizuna egongo da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 20:30ean.
► **Zirka Zirkus** ikuskizuna eskainiko dute bihar, zapatua, pilotalekuan, 16:30ean.
► **Poxpolin Marisorgin** ikuskizuna eskainiko dute Takolo, Pirritx eta Porrotx

ESKIATZERA!



Martxoaren 6an eta 7an
DEBAGOIENETIK
eskiatzera Astunera

114
euro pertsonako

Prezioan barne: Autobusa, bi egunetako erremonteak, bi egunetako eskiatzeko pistetako aseguruak, Jacan gau bat, pentsio erdia, garraio aseguruak

IRTEERAK:
ESKORIATZA 05:00etan (Aketia autobus geltokian)
ARETXABALETA 05:10ean (Azbe autobus geltokian)
ARRASATE 05:15ean (Garibaiko autobus geltokian)
BERGARA 05:30ean (Ibargaraiko autobus geltokian)

Viajes Eroski
Bidaia

Grupo Eroski Kalitatea Bermatuta

eskaintza gehiago www.viajeseroski.es



► JAIK

EUSKAL OKELA FESTA EGINGO DU EUSKO LABELEK BIHAR OÑATIN

Eusko Labela duten txahal okela pintxo goxoak jateko aukera izango dugu bihar, zapatua, Oñatin. Izan ere, herriko lau harakinek Foruen plazan erreko dute txahal osoa. Goizean goiz hasiko dira txahala prestatzen, eta arratsaldean, herritar guztiendako jaialdia egingo da. Oñatiko Udalaren eta Haragiakin SL enpresaren laguntzarekin antolatutako ekitaldia da. 10-12 bat orduz edukiko dute okela sutan; guztira, 250 kilo izango dira. Pintxoak egiteko, harakinok Elkarri taldekoen laguntza izango dute. 19:30ak inguruan, Foruen plazara joaten diren debagoiendar guztiak pintxoak dastatzeko aukera izango dute, 1,5 euroren truke. Ekitaldian bildutako dirua Elkarri mugimenduarendako izango da.

Non: Oñatiko Foruen plazan. **Noiz:** otsailaren 21ean, zapatua. **Ordua:** erre, 08:00etan; pintxoak, 19:30ean.

AIPAGARRI

Melina Lopez

ARRASATE


Melina Lopez eskulturagileak lortu du emakumearen presentzia esparru guztietan sustatzeko beka, Arrasateko Udaleko Emakume Sailak ematen duena. Eskultura eta jantzien moda uztartzen dituen proiektuak. XX. mendeko zortzi artistatan oinarritu da.



Gerardo Markuleta

OÑATI

Gerardo Markuleta idazle eta itzultzaileak *Batak ez du bestea kentzen* poema liburua aurkeztu zuen atzo Gasteizko Artium museoan. Poema bakoitza komunikazio bideetarako joko-esparrutzat jo, eta hermetismoaz beste muturreko poesia bilatzen du. Umorea da osagai nagusia.



Begoña Egaña

ANTZUOLA

Errota-Berriko Begoñak ETB2ko *La flecha amarilla* lehiaketan parte hartuko du. Santiago-bidea egin beharko dute saio horretan lehiakideek, martxoaren 7an hasi eta apirilaren 16ra arte. *Casting*-ean 570 lagunek hartu zuten parte, eta hamabi besterik ez dituzte aukeratu.



HILDAKOAK

Trinidad Mendizabal Aldanondo. Oñatin, otsailaren 11n. 91 urte.
Antonio Alzelai Ezpeleta. Oñatin, otsailaren 11n. 85 urte.
Jesus Mateos Marcos. Oñatin, otsailaren 13an. 81 urte.
Angel Gomez Perez. Bergaran, otsailaren 13an. 79 urte.

Maria Sato Perez. Bergaran, otsailaren 13an. 91 urte.
Rufina Jauregi Laskurain. Bergaran, otsailaren 13an. 99 urte.
Emiliana Rollizo Rodriguez. Arrasaten, otsailaren 13an. 79 urte.
Antonia Rodriguez. Arrasaten, otsailaren 15ean. 77 urte.



Roman Mujika eta Irene Odriozola bergarrek, Mujika gozotegikoek, eguaztenean beteko dituzte 50 urte ezkondu zirela. 1954ko otsailaren 24an ezkondu ziren Arantzazuko baselizan. Familia osoarekin ospatuko dituzte urrezko etzeiak. Zorionak, bikote, familiaren partetik!

URTEURRENA

Oier
Carballares Badiola

Laugarren urteurreneko meza egubakoitzean, otsailaren 27an, 19:00etan, Eskoriatzako San Pedro Parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Daniel
Lasagabaster Arratibel


(marianista)

Zaragozan hil zen 2004ko urtarrilaren 21ean, 94 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza zapatuan, otsailaren 21ean, 18:00etan, Aretxabaletako Aozaratzako San Juan Batailatzailearen elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



GOIENKARIA

Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 80 €.

ESKER ONA

Juan
Urzelai Angiozar

Eskoriatzan hil zen 2004ko otsailaren 17an, 62 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Angel
Gomez Perez

Bergaran hil zen 2004ko otsailaren 13an, 79 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Antonia
Rodriguez Gutierrez

Arrasaten hil zen 2004ko otsailaren 15ean, 78 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrieta & San Miguel
BULEGO BERRIA ARETXABALETAN

INAUGURAZIOA

Otsailaren 27an, 19:00etan
Gonbidatuta zaude! Zatoz gu ezagutzera Ilargi plazara

Ilargi plaza 6, behea. ARETXABALETA / 943 53 40 00

Iturriotz kalea 23, behea. ARRASATE / 943 71 17 81



ARRIETA &
SAN MIGUEL

INMOBILIARIA-AGENTZIA

www.arrietasanmiguel.com

HITZGEZIDUNAK

Luma

	* Izena	Izurriak jo	Oroipenak
	Buruz motel	Olerki lirikoa	
	Lerde	Zerra handi	
* Deitura	Azkenarek o hil		
Jausi	Bokala		
		Nori atzizkia	
		Denbora luzean	
Roentgen	Eder, sotil		
Areto	Lan egiten den egun		
		Infin., utzi	
		Petardo-sorta	
Ukendua, baltsamoa			
Samin, oina-ze			
		Egiptoko jainkoa	Fosforoa
		Gabe, barik	Grina
Belarra mozteko lanabesak	Ebazten duena		
	Lehen emakumea		
		Noren atzizkia	
		Omen (bizk)	
Amaiera			
Gutziz txiki			
		Portu (ald)	

BILABILA7



UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

JUGADA TXARRA DALA-TA
Jokuan ziarduen bi biren kontra. Eibartarra ta plaentxiarra alde batetik, ta beste bixak ermuarrak. Alako batian, jokua pil-pil zeguala, eibartarrak ankasartze ikaragarri bat eñ zeban. Geratu jako plaentxiarra begira-begira, ta esatetsa:

- I, gauza bat jakiñ nai juat. Ik, por si acaso, gattetan-edo artu dok golpe txarren bat buruan?

IRU ANAI MUTIL-ZAR

Iru anai mutil-zar elkarrekin bizi ziran Plaentxian. Euretako bat oso gaizki jarri zan. Orduan beste

bixak, sukaldian, asi ziran gertatzen entierro kontuak.

Batak ziñuan:

- Primerisimakua eñ biarko jetsagu.

Bestiak:

- Bai, eta nork pagau bihar jok?, segunda itxurazko bat be ez dok gitxi.

Hirugarren batek:

- Ara, ba etxagok diferentzia aundirik eta orduan tercera bat naikua dok.

Itxura danez, baiña, gaxuak entzun zebazen anaien asmuak, eta me-me deitxu zetsen esateko:

- Zatozie ona! Badakizue zer pentsau doten? Ekarri eidazuez zapatak eta neu juango non kanposantura.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




Zein herritako Aratusteetako kartelean ageri da irudi hau?

Aratusteetan buru-belarri murgilduko gara asteburuan. Moztarua ipini eta kalera aterako gara herri guztietan. Gainera, egitarau zabala prestatu dute ibarreko herri denetan eta jai egitaratua iragartzeko kartelak erabili dituzte herri askotan; batzuetan lehiaketa ere egin dute. Asmatuko ote zenuke argazkian agertzen den kartela zein herritako jai egitarautakoa den?

- Bergara
- Oñati
- Arrasate
- Eskoriatza

Erantzun zuzena: Arrasate. Jueln Rivasek egin du irudia.

SOLUZIOAK



K	A	I	•	O	N	A	N
A	R	A	E	K	U	B	•
N	•	E	A	K	A	G	S
E	L	Z	B	E	•	•	
P	•	R	A	•	N	I	M
A	Z	U	A	N	T	G	•
Z	T	U	•	A	L	E	G
I	T	L	O	P	•	R	•
R	I	•	R	I	•	E	R
O	A	Z	A	•	A	•	
R	A	D	•	•	•	•	
O	Z	O	N	I	•	•	
•	I	•	I	•	•	•	

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Ondo dago jendeari zure penak eta poztasunak kontatu gura izatea, baina haiei ere entzun beharko diezu, esateko asko dute-eta. Beti gura izaten duzu jendeak zuri entzutea, baina besteie ere utziezu berba egiten, eta entzun arretaz.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Denetik bakartzen bazara, triste egongo zara eta ez duzu ezer konponduko. Zera behar duzu, aldaketa zure ingurunean.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Gutxiago berba egin eta gehiago egin. Lelo horri jarraitu beharko diezu nagusiek zuegan konfiantza izan dezaten, esku artean duzun proiektu hori aurrera eramanez ahal izan dezazun.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Ezer egin aurretik ondo pentsatu; izan ere, oldarkortasun handia eta itxuraren arabera iritzia emateko joera duzu, eta horrek hanka-sartzeren bat egitera eramanez zaitzake. Eta gero damutu egingo zaizu.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Astean barrena barne gatazka izango duzu jendearen aurrean nabarmen geratzearan eta bakarrik egon gura izatearen artean.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Gauzei hamaika buelta eman beharrean, jar ezazu abian esku artean duzun proiektu hori, jendeak esaten dizunari kasurik egin barik. Seme-alabaren batek arazotxo bat izango du, baina berehala konponduko da, baldin eta jarrera tolerantetarekin jokatzen baduzu, jakina.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Zeure buruarekin fidatu. Ez egin kasurik ingurukoek esaten dizutenari, has zaitzez zure beharrak asetzen. Bestalde, agiri guztiak eguneratu, ikuskaritzaren bat izan zenezake-eta.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Bakarrik egon gura duzu, baina guztiz alderantzizko gertatuko zaizu; jende asko etorriko zaizu aholku eske. Ez izan egoista eta entzuezu; izan ere, gezurra badirudi ere, haiei laguntzen badiezu hobeto sentituko zara.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Ondo etorriko litzaizuke bidaiatxoaren bat egitea, edozein lekutara; izan ere, urrutitik arazoak perspektiba eta lasaitasun handiagoz ikusiko dituzu, konponbide hobereak topatze aldera.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Lagunen aholkuei kasu egiezu, haiek zuri laguntzea eta zu pozik ikustea bakarrik gura dutelako. Esaten dizuten dena orpoz orpo jarraitu behar ez baduzu, haien aholkuak kontuan har itzazu, behintzat.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20




Dibertitzeko eta egunerokotasunetik ihes egiteko gogoia izango duzu, eta horrek eragin makala izango du zure lanean; izan ere, lanetik bota egin zaitzake. Hortaz, argi ibili zer egiten duzun, eta gauzak lasai hartu.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20




Araoak maitasun kontuetan; izan ere, neska/mutil bat ezagutu duzu, eta sufrizteari beldur diotzunez, zure barne munduan ezkatuta zara eta ez duzu gura haren berririk izan. Ezagut ezazu poliki-poliki, ezusteko atsegina izan zenezake-eta.



GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

ASTE BURUKO EGURALDIA



ZAPATUA, 21 **DOMEKA, 22**

Egun lainotsua izango da, eta euria egingo du. Temperaturak gora egingo du pixka bat. Haizea aldakor ibiliko da, baina hegoaldeko ukitua izango da nagusi.

Domeka ere egun lainotsua izango da, eta euria egingo du. Baliteke, gainera, ekaitza izatea. Temperaturak berdin jarraituko du eta haizeak men-debaletik joko du.

Nafarroako Erribera: Lainotsu.
Errioxa: Lainotsu.
Pirinioak: Elurra.

Nafarroako Erribera: Ostarteak.
Errioxa: Ostarteak.
Pirinioak: Ostarteak.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TEMPERATURA

8° C

ILARGIAREN ALDIAK: URTARRILA

ilbete 7 ilbehera 15 ilberri 21 ilgora 29

EGUZKIA: OTSAILAREN 22A

Sortu 07:57 Gorde 18:47

URKULUKOURTEGIA

Aste honetan behera egin du Urkuluko urtegiko ur mailak. Ez du euri askorik egin azken egunotan, eta hori igarri egiten da urtegiaren. Joan den asteen %86,3 zegoen beteta.

% 85,6

BEHARREZKO TELEFONOAK

((112)) SOS DEIAK	Arrasate 943 79 14 39	Laixan / Oñati 943 71 63 11
	Aretxabaleta 943 71 18 63	Hondakindegia Alternatiboak
	Bergara 943 77 91 06	Arrasate 943 77 11 43
	Eskoriatza 943 71 44 07	Bergara 945 76 44 42
	Leintz Gatzaga 943 71 47 46	Oñati 943 78 36 67
Oñati 943 78 04 11	Kirioldegia	
GARRAIOAK		
Osasun Etxeak	Arrasate 943 79 12 22	Aramaio 945 44 53 35
Arrasateko Ospital. 943 03 53 00	Aramaio 945 44 50 33	Arrasate 943 77 16 77
Antzuola 943 76 62 23	Aretxabaleta 943 79 22 33	Aretxabaleta 943 71 26 28
Aramaio 945 44 53 40	Bergara 943 79 12 22	Bergara 943 76 56 41
Aretxabaleta 943 71 19 59	Eskoriatza 943 71 40 59	Elgeta 943 76 82 84
Bergara 943 03 54 00	Oñati 943 78 03 65	Eskoriatza 943 71 53 28
DYA (Orokorra) 943 46 46 22	RENFE 943 28 35 99	Oñati 943 71 63 75
DYA (Antzuola) 943 78 71 57	Kultura Etxeak	
Gurutze Gorria 943 22 22 22	Antzuola 943 76 60 65	Antzuola 943 76 62 46
Suhiltzaileak 943 78 28 00	Arrasate 943 77 01 05	Aramaio 945 44 50 16
Ertzaintza	Aretxabaleta 943 71 10 27	Arrasate 943 79 09 00
Arrasate 943 53 47 20	Bergara 943 77 91 58	Aretxabaleta 943 71 18 62
Bergara 943 53 47 20	Eskoriatza 943 71 46 88	Bergara 943 77 91 00
Osasun Etxeak	Leintz Gatzaga 943 71 47 46	Elgeta 943 76 80 22
Arrasateko Ospital. 943 03 53 00	Oñati 943 78 03 53	Eskoriatza 943 71 44 07
Antzuola 943 76 62 23	Udalak	Leintz Gatzaga 943 71 47 46
Aramaio 945 44 53 40	Antzuola 943 76 62 46	Oñati 943 78 04 11
Aretxabaleta 943 71 19 59	Aramaio 945 44 50 16	
Bergara 943 03 54 00	Arrasate 943 79 09 00	
Elgeta 943 78 90 27	Aretxabaleta 943 71 18 62	
Elgeta 943 78 90 27	Bergara 943 77 91 00	
Eskoriatza 943 71 44 52	Elgeta 943 76 80 22	
Leintz Gatzaga 943 71 47 46	Eskoriatza 943 71 44 07	
Oñati 943 03 54 30	Leintz Gatzaga 943 71 47 46	
Hies Ekimena 943 79 26 99	Oñati 943 78 04 11	
Udaltzaingoa		
Antzuola 943 76 62 46		
Aramaio 945 44 50 16		

EUSKARAZKO HEDABIDEAK

GOITB 943 71 23 96 • goitb@goiena.com	Txiritola 943 71 25 11 • txiritola@goiena.com
Goienkaria 943 76 92 71 • goienkaria@goiena.com	Ze barri? 943 79 86 21 • zebarrigoiena.com
Arrasate Press 943 71 25 11 • arrasatepress@goiena.com	Kontzejupetik 943 78 26 17 • kontzejupetik@oinati.net
Berrigara 943 76 03 97 • berrigara@goiena.com	Putz 943 79 42 30 • putz@euskalnet.net
Aretxagazeta 943 79 86 21 • aretxagazeta@goiena.com	Arrasate Irratia 943 71 17 31 • irratia@goiena.com
Goibekokale 943 76 92 71 • goibekokale@goiena.com	Oñati Irratia 943 78 26 17 • irratia@oinati.net
Kontuola 943 76 03 97 • kontuola@goiena.com	Sustatu.com 943 76 92 71 • sustatu@sustatu.com

Erakunde hauen laguntzaz

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jauriritza

Antzuolako Udala
Aramaio Udala
Aretxabaletako Udala

Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Elgetako Udala

Eskoriatzako Udala
Leintz Gatzagako Udala
Oñatiko Udala

'Astelehenero Goienkaria' Astelehenero kalean!



DEBAGOIENA. Aste bukaeran gertatutako guztia, inork baino lehenago eta sakonago.



KIROLA. Gure kirol taldeek jokaturako partiduen kronikak, sailkapenak, emaitzak...



KULTURA. Musika eta antzerki ekitaldi nagusien kronikak, erakusketak, deialdiak...

Harpidetuz gero, etxean: **0,6 euro***
Egunkari saltokietan: **0,8 euro**

*Urte osoko harpidetza: 25 euro

Goienkaria

astelehenero, aste bukaera osoa



ETA GEHIAGO... Iritzia, zerbitzuak, telebista...



Astebete

EGUBAKOITZA, 20 / 20:30 eta 22:30



Herriz herri

MARTITZENA, 24 / 20:30 eta 22:30



Debagoieneko jaiak

EGUAZTENA, 25 / 21:15 eta 23:15



'Harmailatik' saio berezia

EGUENA, 26 / 21:15 eta 23:15

Primerako euskal okela mahaiaren gainean

Aratusteetako jai giroa aprobetxatuz, Euskal Okela marka duten lau harakinek txahal bat erreko dute bihar Oñatin. Bide batez, larrean dabilzan txahaletatik abiatu eta harategian salgai jartzen duten arteko bidea zein den azalduko dute *Astebete*-n.

Oñatiko kontuak landuko dituzte 'Herriz herri'-n

Oñatiko gorabeherak izango dituzte aztergai martitzeneko *Herriz herri* saioan. Betiko moduan, Alberto Gorritibereak elkarrizketa egingo dio herri alkate bati. Oraingoan, Oñatiko alkate Andoni Gartzia izango da gonbidatua.

Mozorrorik dibertigarrienak Aratusteetako saio berezian

Hementxe dira Aratusteak, eta Oihan Vegak eta Kepa Errastik gertu dituzte mozorroak. Herriz herri ibiliko dira jai giroan. Zapatuan Oñatin, domekan Aretxabaletan eta martitzenean Arrasaten. Eguaztenerako gertu izango dute saioa.

Realak eta Lyonek jokatu duten kanporaketa aztergai

Txapeladunen Ligako kanporaketa jokatu dute donostiarrek eta franztziarrek Anoetan. GOITBko lantaldea Donostian izango da, eta protagonisten iritziak jasoko ditu. Partiduaren analisia egingo dugu saio berezian.

TELEBERRIAK

'Barne-barnetik', herriei buruzko dokumentalak ETBn

Eguenean estreinatu zuten euskal herriei buruzko dokumental saila ETB1en. Lehenengo atalean, Elgoibarko ondareak eta inguruak eman zituzten aditzera. Kultura eta turismo ikuspuntutik abiatzen dira dokumentalak: historia, kultura, jaiak, toki erakargarriak eta ohiturak biltzen dituzte. Aretxabaletaren gaineko dokumentala prest dago eta Antzuolaren gainekoa lantzen ari dira.

2000 ezkerro, %13 igo da iragarki kopurua telebista kateetan

Estatu mailako azterketa batek ondorioztatu du 2000 eta 2003. urteen artean, publizitateak telebistan betetzen duen denborak gora egin duela.

Programazioak behera egin ahala, iragartzeko formulek geroz eta emisio espazio handiagoa dute. Igoera nabarmena izan da goizeko emisioetan, arratsaldeko eta gaueko *prime time* orduetegiak guztiz aseta baitaude. Egunean, batez beste, 67 minutu eskaintzen zaie iragarkiei.

Tele5eko 'reality show' berrian etxebizitza izango da saria

Zazpi bikotek parte hartuko dute datorren hiruhilekoan estreinatuko den saioan. Etxebizitza baten eraberritzeko eta dekoratzeko lanetan lehiatuko dira, irabazleek eskuratuko duten etxean, hain justu. Parte-hartzaileek etxolan elkarrekin bizi beharko dute. Izendapen eta kanporaketa sistema izango du.

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Otsailaren 20tik 26ra

EGUBAKOITZA, 20	ZAPATUA, 21	DOMEKA, 22	ASTELEHENA, 23	MARTITZENA, 24	EGUAZTENA, 25	EGUENA, 26
13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Iluntzean 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Iragana gogoratzu: Errementari eta perratzaileen inguruko erreportajea eskainiko dizuegu. 15:30 Lanabesak: <i>Asteleheneko Goienkaria</i> kalean da. Proiektu berriaren gaineko gorabeherak azalduko dizkigute <i>Lanabesak</i> saioan. 16:00 Sarrera doan. 16:30 Iluntzean: Andoni Aizpuru telebista aurkezlea eta eguraldi iragarlea elkarrizketatu du Aintzane Gardokik. 17:00 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Iragana gogoratzu: Errementari eta perratzaileen inguruko erreportajea eskainiko dizuegu. 15:30 Lanabesak: <i>Asteleheneko Goienkaria</i> kalean da. Proiektu berriaren gaineko gorabeherak azalduko dizkigute <i>Lanabesak</i> saioan. 16:00 Sarrera doan. 16:30 Iluntzean: Andoni Aizpuru telebista aurkezlea eta eguraldi iragarlea elkarrizketatu du Aintzane Gardokik. 17:00 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Herriz herri: Oñati 14:30 Berriak 15:00 Herriz herri 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Txintxaun 14:30 Berriak 15:00 Jaiak: Aratusteak 15:00 Herriz herri 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera
19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Astebete 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Astebete 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Jaiak: Aratusteak 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Gaurkoak 23:15 Jaiak: Aratusteak 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik tertulia 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik tertulia 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Herriz herri: Oñati 21:00 Gaurkoak 21:15 Herriz herri: Oñati 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Herriz herri: Oñati 23:00 Gaurkoak 23:15 Herriz herri 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Jaiak: Aratusteak 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Gaurkoak 23:15 Jaiak: Aratusteak 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik: Real-Lyon 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Sarrera doan 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik: Real-Lyon 23:45 Emisio amaiera
21:15 Soinuz blai			22:30 Harmailatik	20:30 Herriz herri: Oñati	21:15 Aratusteak	21:15 Real-Lyon

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefona: 943 71 23 95

KAMERA AURREAN



"Gaur egun, Internetek eguraldiaren gaineko informazio asko ematen digu. Ni ez naiz meteorologoa, baina gauza naiz oraintxe bertan iragarpent bat egiteko. Ez da zaila".

Andoni Aizpuru / Telebista aurkezlea 'Iluntzean' (2004/02/19)



"Squasheko masterrean maila ona egon da; Euskadiko onenek hartu dute parte. Hori ikusita, irailerako Euskadiko Txapelketa antolatu gura dugu".

Iñaki Uribeetxeberria / Masterreko antolatzailea 'Harmailatik' (2004/02/16)

TELEBEGI / Maria Agirre

'Shin Chan' eta...

Irratiz entzun nion ETBko programazio arduradun bati esaten, audientziaren arabera *Shin Chan* eta *Los Simpson* direla umeek gustuko dituzten saioak. Zerrendako hirugarrena ez dakit zein zen, baina laugarrena *Heidi* zen.

Behin baino gehiagotan galdetu diot nire buruari, ea zergatik duten hain gustuko umeek *Shin Chan* edo *Los Simpson*. Marrazki bizidun horietako umore klabeak ezin dituzte umeek ulertu. Aurreko batean galdetu zion Shin Chan-ek amari, aita teiltuan konponketak egiten ari zen bitartean: "Zenbat diru emango digu aseguru etxeak aita teiltatutik jausi eta hiltzen bada?"

Zortzi urteko ume batek ezin du txiste hori harrapatu, edo bestela, nik uste baino argiagoak dira, eta marrazki bizidun horiek halako klabeekin josita daude. Baina esandakoa, zerbait izan beharko dute. Ipurdi eta antzeko gorputz atalak erakusteak txikitzen barregura ematen duela ote da arrakastaren sekretua?





Pauso sendoaz bidea egingo dugu.

Poliki-poliki eta urratsez urrats lehenengo urteetan, Haur Hezkuntzan (0-6 urte) ingurua ulertzen hasiko dira pixkanaka-pixkanaka. Derrigorrezko Hezkuntzan (6-16 urte) gaitasunen garapenari lehentasuna emango diogu, etorkizunari bidea eginez.

**matrikulazio epea zabalik:
otsailaren 16tik 27ra.**

Informa zaitez!

902 11 20 25

arizmendi@arizmendi.ikastola.net


Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

Atzeskua

LEIRE KORTABARRIA

Mari Carmen Galdos/ Moja beneditarra

Beneditarrok 100 urte egiten dituzue aurten Oñatin. Bai, hala da. Hainbat ospakizun antolatu ditugu hori ospatzeko. Besteak beste, ikasle ohi izandakoekin bazkari handia.

Hemendik pasatako guztiak elkartzea ez da gauza makala!

Ez. Ikastetxea sortu zenetik 3.000 ikasletik gora izan ditugu. Asko hil egin dira, beste asko kanpoan bizi dira... Hala ere, gure artxibotatik gordetzen dugu guztion erreferentzia, eta horietaz baliatuko gara.

Guztiekin akordatzen zarete?

Beharbada izenak inoiz ahaztu egiten zaizkigu, baina guztiok gordetzen ditugu oroitzapenean. Gure elizan ere ezkontzen dira ikasle ohiak. Guretako beti poz handia da ikasle izandakoak ikustea.

Gauzak asko aldatu dira lehenengo mojak etorri zirenetik, ezta?

Gaixook oso gaizki pasatu zuten. Ekarri ahal izan zituzten gauza gutxiak, armairuak eta, oraindik gordeta ditugu. VII. mendean sortu zen jatorrizko monasterioa. Frantziako Iraultzatik aurrera, gero

eta arazo gehiago izan zituzten. Azkenean, ihes egin behar izan zuten. Oñatin, Zarate etxean bizi izan ziren denbora batez. Azkenean, hura txiki geratu zitzaizen, eta beldur ziren berriro joan behar izango zutela, baina Oñatiko herriak lagunduta, gaur egungo gure etxea dena etorri ziren 1926an. Beneditarrok eta Oñatiko herriak beti izan dute oso harreman estua.

Festa egun handia izan ei zen Oñatin.

Bai. Herri osoa dotore jantzi eta prozesioan irten zen, mojei laguntzen. Eta historiak dio mojak zein pozik zeuden azkenean etxe egoki bat zutelako.

Irakaskuntza ordutik izan da zuen proiektuaren zati bat, ezta?

Hala da. Hona iritsi ziren lehenengo beneditarrek, frantsesez eta ingelesez bakarrik jakinda, ikastetxe handi bat egitea lortu zuten. Guk beti izan dugu argi

Oñatiko herriari hezkuntza zerbitzua eskaini behar geniola. Gaur egun, 600 ikasle ditugu; gure egoitzan, 400 bat. Etxea, gure proiektua... handitzen eta moldatzen joan dira, herriak eskatu duen neurrian. Besteak beste, euskaraz irakastearen aldeko apustua egin genuen, eta lehenak izan ginen Oñatin euskaraz eskolak ematen.

Ikasle guztiak kristau erlijioak dira?

Ez. Leku eta jatorri askotako ikasleak ditugu, gure proiektua giza balioetan oinarritzen delako. Batzuk musulmanak dira eta euren zapiarekin etortzen dira. Ezin hobeto integratu dira.

Mojen bizitza, otoitza eta lana...

Lan handia ematen du etxea eta eskola aurrera eramateak..., baina daukaguna herriari eskaintzen diogu eta oso pozik bizi gara.



“3.000 ikasletik gora pasa dira hemendik, eta guztiok ditugu oroitzapenean”

“Etxea eta eskola aurrera eramateak lan handia ematen du, baina daukaguna herriari eskainita oso pozik bizi gara”

“Oñatiko herriarekin beti harreman estua izan du moja beneditarren elkartea”

► Oñati / 62 urte / Elkar Heziko zuzendaria

PIPERRAUTSA

Sindikatuak

Elkarrekin ariko dira hurrengo boladan ELA, LAB eta ESK. Adostu berri dute horretarako oinarritzeko agiria, helburu jarri aldatzea langileen egoera, hobetzen hastea gainbehera doana.

Egia biribila da langileen egoerak txarrerara egin duela azken hamarkadan. 80ko industriaren birmoldaketak utzi zuen langabezia itzela 90etan, eta langileari eskatu zitzaion gerrikoa estutzea, ekonomia ateratzeko estutu du gerrikoa urte luzez, ia arnasa galtzeraino. Lan hitzarmenetan onartu dira erosteko ahalmenen galerak eta kontratuen iraupenean murrizketak, irentsi dira egoera diskriminatzaileak, amore eman da enpresaren aurrean behin eta berriz. Emaizta garbia da: enpresak daude hobeto duela 10 urte baino, langileak daude orduan baino okerrago.

Langile naizen aldetik, ados nago egoera iraultzen hasteko asmoarekin. Bidezkoa da berreskuratzea erosteko ahalmena, eta amai daitezela bazterketak, inposaketak eta kontratu esplotatzaileak. Eta egin dezagun azkar, ekonomiaren ziklo ona dagoen artean. Egoera txartuko balitz, ia seguru tokatuko litzaiguke berriro gerrikoa estutzea, arnasa hartu partez.

Bide batez, azken aldiz ELA eta LAB lankidetzan luze aritu ondoren etorri zen Lizarrakoa. Eta ez txirripaz, askoren ustetan. Ea sindikatuen oraingo txanpa honek ere astintzen dituen politikaren ur geldiak!

MIKEL IRIZAR



Ormazabal
BARNE ARKITEKTURA

Garibai 6C • 20500 Arrasate
 Tel: 943 71 19 81
 GIPUZKOA

SUKALDEAK ZERAMIKA
 ARGITERIA ETXERAKO ALTZARIAK
 BAINUAK